




Parte hartu 21:

EAEko herritarrek Tokiko

Agenda 21ean parte hartzeko gakoak





Parte hartu 21:

EAEko herritarrek Tokiko

Agenda 21ean parte hartzeko gakoak



Eskerrak

Hemen ageri diren hauen partaidetzari esker prestatu dugu agiri hau:

- **On line egindako galdetegia erantzun duten EAeko 138 udalerrri eta eskualde.**
Agurain, Dulantzi, Amurrio, Berrundia, Burgu, Iruraitz-Gauna, Bastida, Audio, Erriberabeitia, Donemiliaga, Gaubea, Gasteiz, Aiala eskualdea, Abadiño, Abanto, Ajangiz, Alonsotegi, Zornotza, Arakaldo, Areatza, Arrankudiaga, Arratzu, Arrieta, Arrigorriaga, Atxondo, Bakio, Balmaseda, Barrika, Basauri, Bedia, Bermeo, Berriz, Bilbo, Derio, Durango, Ea, Elantxobe, Elorrio, Erandio, Ereño, Errigoiti, Etxebarri, Forua, Galdakao, Gatika, Gautegiz-Arteaga, Getxo, Gorliz, Gueñes, Ibarangelu, Igorre, Ispaster, Iurreta, Izurtza, Kortezubi, Larrabetzu, Laukiz, Lezama, Loiu, Mallabia, Jatabe, Mañaria, Mendata, Morga, Mundaka, Mungia, Murueta, Muskiz, Muxika, Nabarniz, Urduña, Orozko, Ortuella, Plentzia, Portugalete, Santurtzi, Sondika, Sopelana, Sukarrieta, Ugao, Urduliz, Zaldibar, Zalla, Zamudio, Zaratamo, Zeberio, Zierbena, Nerbioi-Ibaizabal mankomunitatea, Txorierriko mankomunitatea, Urdaibai-Busturialdea, Uribe Kostako Mankomunitatea, Aduna, Albiztur, Alkiza, Amezketa, Andoain, Anoeta, Aretxabaleta, Arrasate, Asteasu, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Belauntza, Berastegi, Bergara, Berrobi, Bidania-Goiatz, Deba, Donostia, Eibar, Elduain, Elgoibar, Erreenteria, Hernani, Hondarribia, Ibarra, Idiazabal, Irun, Irura, Itsasondo, Larraul, Legazpi, Mutiloa, Ordizia, Oñati, Tolosa, Urretxu, Usurbil, Villabona, Zarautz, Zestoa, Zizurkil, Debegesa, Goieki, Oarsoaldea, Tolosaldea Garatzen.
- **50 udalerrri eta eskualdeko erakundetan arduradun politiko, teknikari eta herritarrei egindako banakako 50 elkarrizketa.**
Amurrio, Asparrena, Audio, Gaubea, Gasteiz, Añanako Taldea, Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Zornotza, Areatza, Atxondo, Bakio, Balmaseda, Basauri, Bermeo, Bilbo, Durango, Elorrio, Ermua, Etxebarri, Gueñes, Loiu, Mungia, Muskiz, Urduña, Ortuella, Otxandio, Portugalete, Lea-Artibaiko mankomunitatea, Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Azkoitia, Donostia, Elgoibar, Erreenteria, Ezkio-Itsao, Idiazabal, Irun, Legazpi, Mutriku, Oñati, Ordizia, Tolosa, Zarautz, Zestoa, Zizurkil, Debegesa, Goieki, Tolosaldea Garatzen.
- **Tokiko Agenda 21 teknikarien lan-taldeko partaide izan diren 20 udalerrri edo eskualde.**
Amurrio, Gaubea, Aguraingo taldea, Balmaseda, Bilbo, Jatabe, Muskiz, Busturialdea, Durangaldeko mankomunitatea, Nerbioi Ibaizabal, Uribe Kostako Mankomunitatea, Arrasate, Azpeitia, Donostia, Erreenteria, Legazpi, Zarautz, Zizurkil, Debegesa, Tolosaldea Garatzen.
- **Eta Parte Hartuz demokrazia parte-hartzaileari buruzko ikerketa- eta prestakuntza-taldea, Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Politikoak, Soziologia eta Hezkuntza departamentuetako irakasle, ikertzaile, bekadun eta kolaboratzailez osatua.**

Edizioa: 2010eko iraila.

© IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

Urkixo zumarkalea 36, 6. 48.011 Bilbo.

Tel.: 94 423 07 43 • Faxa: 94 423 59 00.

www.ihobe.net

Argitaratzaileak:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

Eusko Jaurlaritza.

Edukia: Dokumentu hau Ihobek egin du, Prometea enpresaren laguntzarekin.

Diseinua: Tiktak multimedia.

Itzulpena: Elhuyar.

Lege-gordailua: XXXXXXXXXXXX.

Dokumentu hau % 100 paper birziklatuan inprimatu da.

poner nº Depósito
Legal



10 urtez elkarlanean aritu ondoren, eta Udalsarea 21eko (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareko) udalek eta erakundeek atzemandako beharrei erantzunez, herritarrek Tokiko Agenda 21ean parte hartzeko prozesuen garapenean egindako bidea eta izandako esperientzia ezagutu eta aztertu nahi izan ditugu 2009an.

Azterketa horri esker, EAEko udaletara eta eskualde-erakundeetara hurbiltzeko aukera izan dugu, eta hala, herritarrek Tokiko Agenda 21ean parte hartzean izandako zenbait esperientzia ezagutu, iritziak partekatu eta ondorioak atera ahal izan ditugu.

Lan-prozesu horren emaitza nagusiek osatzen dute dokumentu hau. Alde batetik, 12 ondorio atera ditugu EAEko udalerrri eta eskualdeetako herritarrek Tokiko Agenda 21ean parte hartzeko prozesuei buruz. Eta bestetik, ibilbide osoan bildu dugun esperientziak parte-hartzea sendotzeko 8 erronka planteatzeko aukera eman digu. Hori guztia osatzeko, parte-hartzearen 23 esperientzia egoki, EAEn identifikatutakoak, deskribatu ditugu.

Azpimarratu behar da, gaur egun EAEko tokiko 51 erakundek dutela Tokiko Agenda 21 Foroa martxan, eta 2000. urtetik hona 46.866 pertsonak parte hartu dutela Tokiko Agenda 21ek horretarako dituen mekanismoetan (EAEko 138 udalerrri eta eskualdeetan).


Udalsarea 21 osoak (erakundeek, gizarte-eragileek eta gizabanakoek) egindako lanari eta esfortzuari esker ezagutu eta baloratu dezakegu Tokiko Agenda 21ek zer paper duen EAEko herritarren parte-hartzerako prozesuak martxan jartzeko eta garatzeko orduan. Orain, prozesu hori sendotu eta hobetu behar dugu, berrikuntzaren, sormenaren, konpromisoaren eta ardura partekatuaren bidez, besteak beste.

Azpimarratu behar da dokumentu honen atzean pertsona, gizarte-eragile eta erakunde ugari daudela, eta guztiek lagundu dutela azken emaitza honetan, prozesuan parte hartuz eta inplikaturik. Horretarako, tresna hauek erabili dituzte: galdetegiak, banakako elkarrizketak, lantaldeak, kontraste-taldeak eta parte hartzeko tailerrak. Prozesu honetan lagundu diguten guztiei esker eman nahi dizkiegu, eta egin duten lana aitortu nahi dugu. Berrito ere talde-lanaren balioa agerian jartzeko balio izan du.

Amaitzeko, Tokiko Agenda 21ek EAEko herritarrek parte hartzeko prozesuetan egin duen ibilbidearen garrantzia baloratu nahi dut. Hala ere, ezin gara hemen gelditu. Bildu dugun esperientziari eta jakinduriari esker, aukera dugu indarra hartu eta EAEn leku eta herri iraunkorrakoak eraikitzen jarraitzeko, parte hartzen dugun pertsona eta erakunde guztien artean.

Pilar Unzu Pérez de Eulate

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburua



1.	Tokiko Agenda 21ean papera EAEko parte hartzeko prozesuetan.....	7
2.	Analisi eta diagnostikotik etorkizuneko erronketara: lan-metodoa eta -prozesua	11
3.	Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko prozesuen bilakaera: ondorioak.....	15
4.	12 ondorioak, zehatz-mehatz	19
4.1	Udal- eta eskualde-kudeaketan herritarren parte-hartzea txertatzen lagundu du Tokiko Agenda 21ek, hainbat erataria izan bada ere.....	21
4.2	Udalen lidergoa eta konpromisoa Tokiko Agenda 21ean eta parte-hartze prozesuetan ezinbesteko baldintza da, baina ez da aski herritarren inplikazioa lortzeko.....	24
4.3	Oro har, beherantz egin du gizon-emakume parte-hartzaileen kopuruak, eragileek bere horretan iraun badu ere	26
4.4	Eskualde-erakundeek eginkizun garrantzitsua dute parte-hartzearen sostenguan	31
4.5	Herritarren parte-hartzearen udal-planifikazioa premia berria da, eta erantzuna behar du	33
4.6	Asko ikasi eta sakondu da parte-hartzearen diseinuari eta praktikari buruz, baina asko dago oraindik egiteko	37
4.7	Herritarrekiko harremana eta hurbiltasuna ebatzi gabeko gai kezagarria da	43
4.8	Parte-hartze prozesuen ebaluazioa konpondu gabeko arazoa da	47
4.9	Administrazioa eta herritarrak parte hartzen ikasten ari dira, parte hartuz, eta jarrerak eta pertzepzioak aldatzen lagun dezake prozesu horrek	48
4.10	Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuen bidez egindako lanen hedapena mugatua izan da	50
4.11	Parte hartzeko mekanismoek iraunkortasuna herri-mailan aplikatzen laguntzen dute.....	53
4.12	Iraunkortasunaren inguruan gizarte erantzunkide egitea eta sendotzea parte-hartze prozesuen eta Tokiko Agenda 21en emaitza da, eta eraikitzeke dago.....	57
5.	Etorkizuneko erronkak	59
5.1	Etorkizuneko 8 eginkizun, xehe	62

1. Tokiko Agenda 21ean
papera EAEko parte
hartzeko prozesuetan



1. Tokiko Agenda 21ean papera EAEko parte hartzeko prozesuetan

2000. urtetik hona, herritarrek EAEko tokiko politika publikoetan izan duten parte-hartzeak bilakaera positiboa izan du. Ibilbide horretan, Tokiko Agenda 21ek paper garrantzitsua izan du, beste plan eta programa batzuekin batera.


Kontzeptu eta filosofiagatik, Tokiko Agenda 21ek parte hartzeko prozesu bat behar du alboan, Tokiko Agenda osatu eta zehaztu dezan. Hona hemen zer dioen gobernatzeko erei buruzko Aalborgeko lehenengo Konpromisoak:

Aalborgeko 1. Konpromisoa. Gobernu-erak

“Erabakiak hartzeko gure prozesuak demokrazia parte-hartzaileago baten bidez sustatzeko konpromisoa hartu dugu.

Horrenbestez, helburu hauek erdiesteko lan egingo dugu:

- *Epe luzean, hiri edo herri iraunkorrari buruzko ikuspegi komuna osatzea.*
- *Tokiko komunitate eta udal-administrazioetan parte-hartzea eta garapen iraunkorra erdiesteko gaitasuna areagotzeko.*
- *Tokiko sektore guztiei aktiboki parte hartzeko eskatzea.*
- *Erabaki irekiak, arduratsuak eta gardenak hartzea.*
- *Eraginkortasunez eta beste hiri eta gobernu-maila batzuekin bat elkarlanean aritzeko”.*



Tokiko Agenda 21eko herritarren parte-hartzea lantzeko konpromiso honek asko irakatsi digu, eta esperientzia aberasgarria izan da. Ezagutza teorikoa, praktikoa eta bizipenezkoa sortu da, eta ezagutza horri esker, udalak eta bestelako erakundeak herritarrengana irekitzen joan dira pixkanaka.

Azken hamar urteotan EAEko udalerrri eta eskualde gehienetan Tokiko Agenda 21 ezartzeak parte hartzeko saiakuntzak eta prozesuak abiarazi ditu. Horrez gain, Tokiko Agenda garatzean ibilbide berri bat egin dugu.

Ezin dugu ahaztu errealitate bakoitzaren ñabardura txikiek ere garrantzi handia dutela; horiei esker, EAEko Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko prozesuek puntu hauek lortzen lagundu dute:

- Herritarren parte-hartzea udalen eta eskualdeko erakundeen kudeaketan txertatzen.
- Parte-hartzearen diseinuari eta praktikari buruz ikasten, ezagutzen eta saiakuntzak egiten.
- Parte-hartzearekin lotutako oztopoak eta beldurrak (administrazioarenak eta herritarrenak) gutxitzen eta gainditzen.
- Parte hartzen ikasten, inplikaturako eragile eta herritar guztien eginkizun gisara. Parte-hartzeak berekin dakartzan hezkuntza-prozesuei itxura eta edukia ematen.
- Sareko lanari ekiten, maila guztietan: herritarren eta erakundeen artean.
- Alor publikoaren, lankidetzaren eta erantzunkidetasunaren balioa sustatzen.
- Administrazioetik parte hartzeko beste saiakuntza eta prozesu batzuk abian jartzen zenbait gairi dagokienez; esaterako, gaztedia, kultura, euskara, hirigintza, mugikortasuna eta gizarte-zerbitzuak.

Tokiko Agenda 21ek lan parte-hartzaile eta erkidean duen garrantzia aitortzeak ez du esan nahi dena eginda dagoenik. Ezinbestekoa da egindakoa baloratzea, eta hobetu beharrekoak identifikatzea. Eta horixe da, hain zuzen, dokumentu honen helburua.

“Iraunkortasuna eta parte-hartzea komunikatzeko eta beste ate batzuk zabaltzeko balio izan du Tokiko Agenda 21ek eta Ihoberen ahaleginak. Baina orain premia berrietara eta beste errealitate batzuetara egokitu behar den bigarren iraultza falta da”.

(Banakako elkarrizketa)



2. Analisi eta diagnostikotik etorkizuneko erronketara: lan-metodoa eta -prozesua



2. Analisi eta diagnostikotik etorkizuneko erronketara: lan-metodoa eta -prozesua

Udalsarea 21eko (Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareko) udalerrien beharrak ikusita sortu ziren dokumentu hau eta honekin batera doan lan-prozesua (ikus 1. mapa). Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Tokiko Agenda 21eko herritarrek parte hartzeko prozesuak ezagutzeko eta ebaluatzeko beharra zuten udalerriek.

Horretarako, EAEko udalerrri eta eskualdeetako Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko zenbait prozesu aztertu dira 2000. urtetik hona, eta hauek izan dira helburuak:

- **1. helburua:** ezaugarri nagusiak eta bilakaera ezagutzea.
- **2. helburua:** aurrerapenen diagnostikoa egitea, eta lortutako emaitzak aztertzea.
- **3. helburua:** egindako ibilbidea eta uneko egoera baloratzea, eta etorkizuneko erronkak identifikatzea.

Parte hartzeko prozesuak aztertzeko orduan, funtsezko irizpide hauek izan dira kontuan:

- Ikuspuntu politiko eta teknikoak eta herritarren ikuspuntuak txertatzea.
- Lanaren fase guztietan zehaztasun teknikoa mantentzea.
- Parte hartzeko prozesuetan parte hartzen duten pertsonen esperientziak baloratzea, eta tokian tokiko adibide egokiak baloratzea.
- Egindako lana Tokiko Agenda 21ean ari diren teknikariek eta herritarren parte-hartzean aditu direnekin alderatzea.
- Ideiak eta mezuak argi eta zuzen komunikatzea.


Bideratu eta dokumentu honetan jaso dugun lan-prozesuaren ondorio nabarien artean hauek gailentzen dira:

- Udalerrri eta eskualdeetako erakundeek on line bete dituzten 138 galdetegi (ikus 2. mapa).
- Kargu politikoei, teknikariei, gizarte-erakundeei eta herritarrei banaka egindako 50 elkarriketa.
- Tokiko Agenda 21ean diharduten 20 udal- eta eskualde-teknikariek osatutako lantaldearen ekarpenak.
- EAEko udalen eta eskualdeen 23 jardunbide egoki, egindako aurrerapenen adierazle.
- 2000. urtetik Tokiko Agenda 21ean egin diren parte hartzeko prozesuen bilakaera laburbiltzen duten 12 ondorio.
- Administrazioak eta, zehazki, Tokiko Agenda 21ekoek sustatzen dituzten parte hartzeko prozesuak hobetzen lagunduko duten etorkizuneko 8 erronka.


Dokumentu honen prestaketa eta idazketa kontraste-talde batek gainbegiratu du. Hau da taldearen osaera:

- Tokiko Agenda 21ean diharduten 20 udal- eta eskualde-teknikarik osatutako lan-taldea.
- Parte Hartuz demokrazia parte-hartzaileari buruzko ikerketa- eta prestakuntza-taldea.

1. Mapa. Udalsarea 21 osatzen duten udal-erakundeak.



2. Mapa. Galdetegia erantzun duten udal- eta eskualde-erakundeak.



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

3. Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko prozesuen bilakaera: ondorioak



3. Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko prozesuen bilakaera: ondorioak

Tokikoa Agenda 21eko herritarrek parte hartzeko prozesuak, 2000. urtetik hona EAEko udalerrri eta eskualdeek egin dituztenak, ezagutu, aztertu eta baloratu ahal izateko, parte hartu duten pertsona eta erakundeen iritzia bildu dugu: udal-arduradunak, udal-teknikariak, gizarte-erakundeak eta herritarrak.

Metodologia hau erabili dugu:

- Udal eta eskualde guztietara igorritako on line galdetegia.
- Banakako 50 elkarrizketa.
- Kontraste-taldeak emaitzak baliozkotu ditu.

Azterketa horren emaitzek adierazi dutenez, erabilitako tresnek eta metodologiak lagundu dute planteatutako helburuak lortzen.

On line egindako galdetegiak aukera eman du:

- Tokiko erakundeen esperientzia parte-hartzailea ezagutzeko tresna baliagarria izateko.
- Datu fidagarriak eta adierazgarriak eskuratzeko. 244 udalerrri eta eskualdeetatik 138k erantzun dute (% 90eko konfiantza-maila eta % 5eko gehienezko akats-maila izateko behar zen gutxieneko lagina 128 zen).
- Datu-base bat osatzeko 138 udalerrri eta eskualdeei buruzko informazio kuantitatiboarekin.
- Emaitzak bistaratzeko mapak egiteko.
- Joera eta balorazio kualitatiboak detektatzeko.
- Jardunbide on batzuk biltzeko.
- 138 udalerrri eta eskualdeak parte-hartze prozesuaren garapen- eta finkapen-mailaren arabera sailkatzeko, banakako elkarrizketak diseinatzeke aurreko pauso gisara.

Banakako elkarrizketak baliagarriak izan dira:


- Udalerrri eta eskualdeak beren parte-hartze mekanismoen kalitate, aniztasun eta iraunkortasunaren arabera sailkatzeko. Horretarako, on line galdetegiaren emaitzak erabili dira; gainerako erakundeetarako, diagnostiko intuitibo bat.
- Elkarrizketatu beharreko pertsonen profila zehazteko, irizpide hauen arabera: adina, generoa, profil politikoa, profil teknikoa eta herritar-profila, inplikazioa, udalerrriaren tipologia edo Tokiko Agenda 21en ezarpenaren eta garapenaren ezaugarriak.
- Elkarrizketatutako pertsonen profil politiko, profil tekniko eta herritar profil bakoitzeko eta udalerrri-motaren arabera (Tokiko Agenda 21 parte-hartze mekanismo egonkorrekin edo gabe) galdetegi-eredu bat prestatzeko.
- Banakako 50 elkarrizketatik informazio kualitatiboa lortzeko.
- Joerak, premiak eta etorkizuneko erronkak hautemateko.
- Balorazioak, irakaspenak eta jardunbide onak ezagutzeko.

Eratutako kontraste-taldearekin emaitzak egiaztatzeak honetarako balio izan du:

- Diagnostika eta emaitzak berresteko.
- Esperientzia abiapuntu hartuta, ideia batzuk zehazteko eta hobetzeko.
- Beste hausnarketa batzuk sartzeko, ideia batzuk sendotzeko eta diagnostikoan sakontzeko.

Prozesu honetan parte hartu duten pertsonak emandako informazioa ezagutu, aztertu eta baloratu ondoren, 12 ondorio identifikatu dira, eta ondorio horiek Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko prozesuen bilakaera laburbiltzen dute, 2000. urtetik hona.

Ondorio horiek bost erreferentzia-esparrutan bildu ditugu:



Hona hemen ondorioak:

Estrategia

1. Udal- eta eskualde-kudeaketan herritarren parte-hartzea txertatzen lagundu du Tokiko Agenda 21ek, hainbat erataria izan bada ere.

Lidergo partekatua

2. Udalen lidergoa eta konpromisoa Tokiko Agenda 21ean eta parte-hartze prozesuetan ezinbesteko baldintza da, baina ez da aski herritarren inplikazioa lortzeko.
3. Oro har, beherantz egin du gizon-emakume parte-hartzaileen kopuruak, eragileek bere horretan iraun badu ere.
4. Eskualde-erakundeek eginkizun garrantzitsua dute parte-hartzearen sostenguan.

Planifikazioa

5. Herritarren parte-hartzearen udal-planifikazioa premia berria da, eta erantzuna behar du.

Metodoa

6. Asko ikasi eta sakondu da parte-hartzearen diseinuari eta praktikari buruz, baina asko dago oraindik egiteko.
7. Herritarrekiko harremana eta hurbiltasuna ebatzi gabeko gai kezagarria da.
8. Tokiko Agenda 21eko parte-hartze prozesuen ebaluazioa konpondu gabeko arazoa da.

Eragina eta emaitzak

9. Administrazioa eta herritarrak parte hartzen ikasten ari dira, parte hartuz, eta jarrerak eta pertzepzioak aldatzen lagun dezake prozesu horrek.
10. Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuen bidez egindako lanen hedapena mugatua izan da.
11. Parte hartzeko mekanismoek iraunkortasuna herri-mailan aplikatzen laguntzen dute.
12. Iraunkortasunaren inguruan gizartea erantzunkide egitea eta sendotzea parte-hartze prozesuen eta Tokiko Agenda 21en emaitza da eta eraikitzeke dago.

4. 12 ondorioak, zehatz-mehatz



4. 12 ondorioak, zehatz-mehatz

- 4.1 Udal- eta eskualde-kudeaketan herritarren parte-hartzea txertatzen lagundu du Tokiko Agenda 21ek, hainbat erataria izan bada ere.
- 4.2 Udalen lidergoa eta konpromisoa Tokiko Agenda 21ean eta parte-hartze prozesuetan ezinbesteko baldintza da, baina ez da aski herritarren inplikazioa lortzeko.
- 4.3 Oro har, beherantz egin du gizon-emakume parte-hartzaileen kopuruak, eragileenak bere horretan iraun badu ere.
- 4.4 Eskualde-erakundeek eginkizun garrantzitsua dute parte-hartzearen sostenguan.
- 4.5 Herritarren parte-hartzearen udal-planifikazioa premia berria da, eta erantzuna behar du.
- 4.6 Asko ikasi eta sakondu da parte-hartzearen diseinuari eta praktikari buruz, baina asko dago oraindik egiteko.
- 4.7 Herritarrekiko harremana eta hurbiltasuna ebatzi gabeko gai kezagarria da.
- 4.8 Parte-hartze prozesuen ebaluazioa konpondu gabeko arazoa da.
- 4.9 Administrazioa eta herritarrak parte hartzen ikasten ari dira, parte hartuz, eta jarrerak eta pertzepzioak aldatzen lagun dezake prozesu horrek.
- 4.10 Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuen bidez egindako lanen hedapena mugatua izan da.
- 4.11 Parte hartzeko mekanismoek iraunkortasuna herri-mailan aplikatzen laguntzen dute.
- 4.12 Iraunkortasunaren inguruan gizartea erantzunkide egitea eta sendotzea parte-hartze prozesuen eta Tokiko Agenda 21en emaitza da, eta eraikitzeke dago.



4.1 Udal- eta eskualde-kudeaketan herritarren parte-hartzea txertatzen lagundu du Tokiko Agenda 21ek, hainbat erataria izan bada ere.

“Tokiko Agenda 21ek ireki du ate hori, erabakiak herritarren parte-hartzea aintzat hartuta hartzeko abagune eta kultura berri-rena”.


(Banakako elkarrizketa)



EAEEn ezarri zenetik, berezko prozesu bat balitz bezala landu du herritarren parte-hartzea Tokiko Agenda 21ek. Herritarren parte-hartzea diseinu-fasean beste faseetan baino aktiboagoa izan da, nahitaezko baldintza zelako. Tokiko Ekintza Planaren garapen-, segimendu- eta berrikusp-en-faseetan, ordea, indarra galduz joan da, udalen gidaritzaren eta erabakimenaren mende zeuden eta.

Beste era batera esanda, zenbait udalerrri eta eskualdetan soilik egin da derrigorrezko eginbeharretatik udalaren konpromisorako bilakaera. Ondorioz, oso desberdinak dira Tokiko Agenda 21eko fase bakoitzean herritarren parte-hartzeak izandako garapenak eta finkapenak (ikus 1. irudia).

1. Irudia. Tokiko Agenda 21eko faseetan garatutako parte-hartze mekanismoak.



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Nola sustatu da herritarren parte-hartzea?

2000. urtetik hona, parte hartzeko hainbat mekanismo jarri dituzte martxan udalek eta eskualdeek, eta mekanismo horiek elkarren osagarri dira:

Tokiko Agenda 21 Foroa

Mekanismo hedatuena da. Arduradun politikoez, udal-teknikariek, gizarte-erakundeek eta herritarrek ideiak proposatzen eta trukatzeko dituzte, tokiko garapen iraunkorrerako lortzen saiatzeko.

“Gure udalerrriaren garapen iraunkorrari buruz dauden iritzi eta sentikortasunen aberastasunaren erakusleia da Tokiko Agenda 21 Foroa, eta balioa eransten du herriarekin lotutako gaietan”.

(Banakako elkarrizketa)



Aholku Batzordeak edo Batzorde Sektorialak

Hiri handienetan, Aholku Batzorde edo Batzorde Sektorialek Tokiko Agenda 21 Foroa ordezkatu dute. Aurrekoaren antzeko eginkizuna dute batzorde horiek, eta partaidetza-araudi batek erregulatzen du haien funtzionamendua. Mahaiak gaika antolatzen dira.

Gaikako tailerrak

Tokiko Agenda 21 ezartzeko fasean garatzen dira, eta Tokiko Ekintza Planaren proiektu edo ekintzen eztabaidan jartzen dute arreta. Azken urteetan, garrantzia handia hartzen ari dira.

Udalerrria-Enpresa Foroak

Industriak garrantzi handia duen udalerrri edo eskualdeetan garatzen dira. Helburua ekonomia-eragileekin lan egitea da, enpresen eremuan Ingurumeneko Ekintza Planak landu eta ezartzeko.

Eskolako Agenda 21 Foroa

Gero eta protagonismo handiagoa du udaletan. Udal-arduradunak eta teknikariak, eta Eskolako Agenda 21ean lan egiten duten ikastetxeetako haur eta gazteak, gurasoak eta irakasleak biltzen dituen eremua da. Zenbait udalerritan (esaterako, Balmasedan edo Legazpin), Tokiko Agenda 21 Foroko kideek ere parte hartzen dute.

“Eskolako Agenda 21 Foroa baliagarria da oso. Hezitzailea da, oinarriak jartzeko eta gauzak behetik egiteko aukera ematen du. Gizabanako gisa eta norberaren erantzukizunean hezten laguntzen du”.

(Banakako elkarrizketa)



Bestelakoak

Udalerrri txikienetako parte hartzeko mekanismoak biltzen dituzte; esaterako, Herri Batzarretakoak edo Kontzejuetakoak.

Emandako pauso horiekin guztiekin, bide luzea egin dugu, baina aurrera jarraitu behar dugu.

“Parte-hartzea gehiago errotu behar da herri-dinamika eta -kudeaketan. Udalen jarduerako parte-hartzea normalizatzea da erronka”.

(Banakako elkarrizketa)



1. Esperientzia ona:

Durangoko Tokiko Agenda 21 Foroa gaikako lantaldeetan antolatu da.

2006ko abenduan Tokiko Ekintza Plana onartu ondoren, herritarren parte-hartze prozesuan aurrera egin behar zela ikusi zuen Tokiko Agenda 21 Foroak. Horretarako, Ekintza Planean jasotako gaietarako buruzko hileko gaikako foroak antolatzea proposatu zen.

2007. urtean informazio-, prestakuntza- eta partaidetza-foroak egin ziren gai hauen inguruan:

- Uraren kudeaketa
- Hondakin-kudeaketa
- Airearen kalitatea
- Irisgarritasuna
- Mugikortasuna
- Udal-kudeaketa

Hauxe da foro horietan erabili zen dinamika: adituek azalpenak ematen zituzten eta, ondoren, dinamizazio-lana egin zen, eztabaidagaiari buruzko ideiak sortzeko eta hausnarketa eragiteko. Han ateratako emaitzei esker, Ekintza Plana sortu eta onartu zen.

Ekintza Planeko lehentasunezko gaiak sakon aztertzeko lan-mekanismo dinamikoagoak eta espezifikagoak behar zirela ikusi zuen Foroak. Horrenbestez, 2007aren amaieran eta 2008aren hasieran hiru lantalde hauek sortu ziren:

- Poluzio atmosferikoa eta akustikoa
- Mugikortasuna
- Irisgarritasuna

Gaikako lantalde horiek hilean behin biltzen dira. Ondorio eta ekarpen nagusiak Foro Orokorrean onartzen dira, eta, ondoren, Batzorde Politikoari aurkezten zaizkio. Garrantzi txikiagoko gaiak Batzorde Politikoari aurkezten zaizkio zuzenean.

Hauek dira lantaldeek lortutako emaitzak:

Poluzio atmosferikoa eta akustikoa

- Durangoko airearen kalitate-planaren segimendu jarraitua egitea.
- Komunikazio-kanpainak diseinatzea.
- Kutsadura elektromagnetikoaren ordenantza egitea (prestatzen).
- Igorpen txikiak eremuak sortzea.
- Ordenantzetan iraunkortasun-irizpideak txertatzea.
- Kutsaduraren inbentarioak egitea.
- Airearen kalitatea hobetzea.

Mugikortasuna

- Bidegorria faseka diseinatzea (urte batean 10 km diseinatu dituzte).
- Bizikletak aparkatzeko lekuak gaitzea.
- Parking publikoetan tarifa berriak ezartzea.
- Mugikortasun-sistema iraunkorreko plana prestatzea (bidean).

Irisgarritasuna

- Eraikin publikoetan esku hartzeari lehentasuna ematea.
- Udalerriko zebra-bide guztien irisgarritasuna diseinatzea eta gauzatzea.

Durango, gaikako lantaldeak Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko beste mekanismo batzuekin osatu dira:

Tokiko Agenda 21 Foroa

Sei hilean behin Tokiko Ekintza Planaren betetze-eta garatze-mailaren segimendua egiten da.

Iraunkortasunaren Mahai Teknikoa

Udaleko hainbat alorretako teknikariak osatzen dute. Tokiko Ekintza Planaren segimendu teknikoa egiteaz eta gaikako lantaldeen bidez Tokiko Agenda 21 Foroak egiten dituen proposamenak aztertzeaz arduratzen da.

Garapen Iraunkorreko Batzorde Politikoa

Udaleko arduradun politikoek osatzen dute. Tokiko Agenda 21 Foroak eta Iraunkortasunaren Mahai Teknikoak egindako proposamenak aztertzen eta onartzen ditu.

Mekanismo horien guztien baturak iraunarazten du bizirik Durangoko Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko prozesua, eta, hala, Tokiko Ekintza Plana oso aurreratuta dago.

Gaur egun, wiki bat diseinatzen ari dira, parte-hartzaileek bileren aktak kontsultatzeko, ekarpenak egiteko, eztabaida pizteko... eta, azken finean, guztion iritzia kontrastatzeko tresna izan dadin.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu webgune hau: www.durango-udala.net

4.2 Udalen lidergoa eta konpromisoa Tokiko Agenda 21ean eta parte-hartze prozesuetan ezinbesteko baldintza da, baina ez da aski herritarren inplikazioa lortzeko.

Parte hartzen duten pertsona eta gizarte-eragileek udalaren konpromisoa sentitu behar dute, puntu hauetan islatuta:

- Parte hartzeko prozesuaren justifikazioan eta jomugan (zergatik eta zertarako).
- Parte-hartzearen emaitzak gauzatzean.

“Parte-hartzeari dagokionez, familiari, telebistako futbol-partidei, aisialdiari eta abarri eskaintzen zaion denborarekin lehiatu behar dugu, eta, beraz, jendeak errentagarritasuna ikusi behar dio inbertituko duen denborari: zerbaitetarako balio behar du, eta ikusi egin behar da”.


(Banakako elkarrizketa)




2. eta 3. irudien arabera, konpromiso politikoari esker mantentzen dira aktibo parte hartzeko mekanismoak:

- Parte hartzeko mekanismo aktiboak dituzten EAEko udalerrri eta eskualdeetan nabarmena da tokiko arduradun politikoen buruzagitza eta parte-hartzea (ikus 2. irudia).
- Aktibo mantendu ez diren mekanismoek, aldiz, buruzagitza politiko txikiagoa izaten dute (ikus 3. irudia).

2. Irudia. Aktibo dauden parte-hartze mekanismoetan, nabari da tokiko arduradun politikoen lidergoa eta parte-hartzea?



3. Irudia. Aktibo ez dauden parte-hartze mekanismoetan, nabari zen tokiko arduradun politikoen lidergoa eta parte-hartzea?



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Ideia nagusiak

- Udalen lidergoa eta konpromisoa erabakigarria da, baina ez nahikoa, herritarrengana iristeko, komunikatzeko eta parte hartzera bultzatzeko.
- Herritarrek parte hartzeko prozesuen buruzagi izateak udal-antolakuntzan aldaketak eskatzen ditu: gauzak egiteko eran, barne-koordinazioan, arloen arteko zeharkakotasunean eta herritarren eta administrazioaren dinamikak doitzeko eran.
- Tokiko Agenda 21ek eta parte hartzeko prozesuek udaleko barne-antolakuntza finkatu behar dute, gobernu-aldaketak gertatu arren prozesuak aurrera jarraitzeko. Herritarren parte-hartzea sendoa bada, prozesuaren segidari ere eragingo dio.

“Etxe barruan zeharkakotasuna behar dugu parte-hartzea kanporantz sustatzeko”.

(Banakako elkarrizketa)



2. Esperientzia ona:

Legazpiko Tokiko Agenda 21 Foroaren garrantzia eta protagonismoa udaleko gobernu-aldaketaren aurrean.

2007an, udal-hauteskundeen ondoren, Legazpiko Udalean gobernu- eta alkate-aldaketa izan zen.

Prozesuaren segidari buruzko ziurgabetasuna zela eta, Legazpiko Tokiko Agenda 21en eginkizunari eusteko asmoz, Foroaren baterako lehenengo bilera antolatu zen, eta bertan ekintza hauek gauzatu ziren:

- Tokiko Agenda 21en, haren izaera eta eginkizunen aurkezpena egin zioten gobernu-talde berriari.
- Tokiko Agenda 21eko kide diren pertsona eta erakundeek parte hartzeko mekanismoaren balioa eta potentzialtasuna erakutsi zuten, eta galdera hauei erantzun zieten: zer da, gure iritziz, Legazpiko Tokiko Agenda 21?, zer ekarpen egiten digu?, zer ekarpen egiten dio foroak Legazpiri?, zelan sentitzen gara foroan?, foroaren zer alderdi on eta txar nabarmentzen ditugu?

Ondorioz, gobernu-talde berriak lehen esku-tik ezagutu zituen Legazpiko Tokiko Agenda 21 Foroaren funtzioa eta lana. Bestalde, parte hartzen duten pertsona eta erakundeek berretsi egin zuten Foroak, aurreko gobernu-taldearekin hartutako konpromisoa oinarritzat hartuz, parte hartzeko mekanismo gisa jokatzen duen paperaren balioa.

Tokiko Agenda 21 Foroak lan egiten jarraitzen du gaur egun, Legazpiko Udala buru eta sustatzaile duela. Egiten duen lanari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu dagokion atala udalaren webgune honetan: www.legazpiko-udala.info

4.3 Oro har, beherantz egin du gizon-emakume parte-hartzaileen kopuruak, eragileenak bere horretan iraun badu ere.

Parte-hartzeari buruzko balorazioa desberdina da, udalerrri edo eskualde bakoitzaren arabera eta aztertutako irizpideen arabera. Balorazio generikoa lortzeko, alderdi hauek aztertu dira:

- Partaidetza-mekanismo bakoitzeko parte-hartzaileen kopurua.
- Parte hartzen duten eragile eta taldeen aniztasuna.
- Parte-hartzaileen balorazio kualitatiboa.

Horri guztiari esker, emaitza eta balorazio hauek lortu dira:


Parte-hartzaileen kopurua

Beranzko joera ikusten da Tokiko Agenda 21eko prozesuetan parte hartzen duten pertsonen eta erakundeen kopuruari dagokionez (ikus 4. irudia eta 3. eta 4. mapak).

EAEko 138 udalerrri eta eskualdek erantzundako galdetegitik datu hauek atera dira:


- % 38,41en ustez parte-hartzea jaitsi egin da denborarekin.
- % 26,09k dio parte-hartzea mantendu egin dela.
- % 11,59ren esanetan, igo egin da.

4. Irudia. 2000z geroztik, termino kuantitatibotan, eragile eta kolektiboen parte-hartzea.



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

3. eta 4. Mapak. Eragile eta taldeen parte-hartzearen bilakaera kuantitatiboa 2000z geroztik, udalerrien eta eskualde-erakundeen arabera.



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Parte-hartzearen eragin kuantitatiboa:

- 2000tik 2008ra bitarte 84 udalerrri edo eskualde-erakundek antolatutako Tokiko Agenda 21 Foroetan 22.824 bertaratze izan ziren, guztira. Bertaratze horietatik 18.225 gaur egun aktibo segitzen duten 51 Tokiko Agenda 21 forori dagozkie, eta 4.599, dagoeneko martxan ez dauden 33 forori.
- Tokiko Agenda 21ean aktibo dauden parte hartzeko mekanismoetan, 12.516 bertaratze izan ziren 2008an.

1. taulan, 2009an aktibo dauden Tokiko Agenda 21eko parte-hartze mekanismoen eragin kuantitatiboa zehazten da.

1. Taula. 2009an aktibo zeuden Tokiko Agenda 21 parte-hartze mekanismoen eragina.

	Tokiko Agenda 21 Foroa	Eskolako Agenda 21 Foroa	Udalerría - Enpresa Foroa	Ingurumeneko Batzorde Sektoriala	Garapen Iraunkorreko Batzordea	Gaikako tailerrak lantaldetan	Beste zenbait: Herri Batzarrak ...
2009an mekanismoa aktibo zuten erakundeen kopurua	51	61	10	9	16	15	10
Berlaratze guztiak 2000tik	18.225	12.552	598	4.555	2.445	5.012	3.449
Berlaratze guztiak 2008an	4.205	3.200	297	1.271	877	1.626	1.040
Bileren batezbestekoa/urtea	4,60	1,96	2,5	6,1	5,37	5,73	3,6
Parte-hartzaileen batezbestekoa/bilera	18,88	30,45	12,8	22,11	10,18	18,6	29,4

Iturria: EAEko 138 udalerrí eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.


Idea nagusiak:

- Tokiko Agenda 21 Foroa eta Eskolako Agenda 21 Foroa dira parte hartzeko mekanismo sarrienak EAEko udal- eta toki-erakundeetan. Ingurumeneko Aholku Batzordeak udalerrí handietan daude soilik.
- Lantaldeen gaikako tailerrak, osterá, garrantzia hartzen ari dira, Tokiko Ekintza Planeko proiektu zehatzak diseinatzeko eta garatzeko faseetan. Partaideen batezbestekoa, bilera, 18,6 da. Guztira 1.626 berlaratze izan ziren 2008an.
- Egokia da Tokiko Agenda 21eko partaidetza-lana lehendik dauden eta erakunde bakoitzaren egiteko eran sustraiturik dauden mekanismoetara begira jartzea. Adibidez, 29,4 lagunek hartzen dute parte, batez beste, herri-batzar edo kontzejuetan, bilkura bakoitzeko.
- Urtean bilera-maiztasun handiena duten parte-hartze mekanismoak Ingurumeneko Batzorde Sektorialak, Garapen Iraunkorreko Batzordea eta Gaikako Tailerrak dira.
- Bilkura bakoitzeko batez beste jende gehien biltzen duten parte-hartze mekanismoak Eskolako Agenda 21 Foroa, Herri Batzarrak edo beste mekanismo espezifiko batzuk eta Ingurumeneko Batzorde Sektorialak dira.

Parte-hartzaileen aniztasuna

Parte-hartze prozesuetako eragile edo taldeen aniztasuna mantendu edo igo egin da itaundu-tako erakundeen % 48,55ean (ikus 5. irudia).


5. Irudia. 2000tik, termino kualitatibotan, eragile eta taldeen aniztasuna.



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Udal- eta eskualde-erakundeen arabera zehaztuta dator irudi hauetan:

5. eta 6. Mapak. Eragile eta taldeen aniztasunaren bilakaera 2000z geroztik, udal- eta eskualde-erakundeen arabera.



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Balorazio kualitatiboa

Hauek dira arduradun politikoek, udal-teknikariek eta herritarrek galderei emandako erantzun adierazgarrienak: Tokiko Agenda 21eko parte-hartze prozesuen zer alderdi hartzen da positibotzat? Zer alderdi hobetu behar da?



Alderdi positiboak hauek dira:

“Herritarren eta udalaren arteko bi noranzkoko prozesu etengabea, ideiak partekatuz eta hobekuntzak eginez udalerrri- eta auzo-mailan eragiten duten esparruetan”.

“Udaletik balio handia ematen diogu Tokiko Agenda 21 Foroari, iraunkortasunarekin lotutako gaietan herritarrek parte hartzeko bide gisa. Talde bat ia beti etortzen da, eta jende berria etortzen ari da. Taldeak “egiten jakite bat” du, gaiak aztertzean errespetu handia dago pertsonen artean, eta jendeak “gozatu egiten du”. Dinamizazioak garrantzi handia du. Arduradun politikoek gero eta argiago dute gai batzuk Forora eraman behar direla, eta, erabaki-ahalmenik ez izan arren, guztion artean hartutako erabakietako asko gauzatzen dira praktikan”.

“Beti ari gara herriaz, eta, beraz, interes partikularrek ez dute lekurik. Jendearen ekarpenak aintzat hartzen ditut; asko ikasten dugu elkarrengandik, ideiak desberdinak izan arren”.

“Gai txiki baina egunerokoek garrantzia hartzen dute. Udala eta herritarrek elkarrengandik gertuago egotea dakar”.

“Udalak nola funtzionatzen duen eta udalaren antolaketa sentitu eta ezagutzen dute parte hartzeko interesa dutenek. Garrantzitsua iruditzen zait hori”.

“Eskolako Agenda 21 Foroa: txikienak ingurumenaren garrantziaz jabetzen dira, eta haien ohituratan eragin daiteke. Parte-hartzeak ohiturak aldatzen dizkie; arazoez ohartzen dira eta horretan pentsarazten die, eta konpromisoa hartzen dute. Horrez gain, uste dut garrantzitsua dela udalarekiko hurbiltasuna eta, zerbait egiterik izan ez bada, zergatik izan den esatea”.

“Erabakiei indar edo sendotasun handiagoa ematen die. Herritarren parte-hartzean oinarritutako proiektuek balio handiagoa dute, eta zail da aldatzen”.



Hobetu beharreko alderdiak:

“Parte-hartzearen aniztasuna areagotu eta beste talde batzuek (gazteak, enpresak, immigranteak, kasu) parte hartzea lortu behar da”.

“Parte hartzen dutenen eta ez dutenen atxikimendua, motibazioa eta ilusioa”.

“Udalaren gidaritzza eta konpromisoa”.

“Parte-hartze egonkorragoa eta jarraituagoa, eta proiektu zehatzak prestatzeko foroak edo bilerak”.

“Bileretan dinamizazioa falta da. Bestalde, gaien urteko programa edo planifikaziorik ez dago”.

“Ekintza Plana onartu zenetik, iruditzen zait jendeak ez duela argi forora zertara joaten den. Informazio-foro bat da, eta taldea ez da parte aktiboa”.

“Interes pribatuetatik herriaren edo komunitatearen interesetara aitzinatzea. Interes kolektiboa ez da interes partikularren batura”.

“Itzultzea eta jakinaraztea. Zertan geratu da bileretan landu genuena? Zertarako balio izan du? Zergatik egin dira gauza batzuk, eta beste batzuk ez?”

“Parte hartzeko mekanismo batzuen politizazioa: faktore horrek parte hartzeko gogoia kentzen dio beste jende bati”.



(Banakako galdetegi eta elkarriketetatik ateratako hausnarketak)

4.4 Eskualde-erakundeek eginkizun garrantzitsua dute parte-hartzearen sostenguan.

Eskualde-erakundeek garrantzi handia dute Tokiko Agenda 21en diseinu eta ezarpenean, eta, horrez gain, sostengua ematen diote parte-hartze prozesuen garapenari.

Parte hartzeko udal-mekanismoetako askok eskualdeko erakunde batzuen dinamizazio-, kudeaketa eta koordinazio-lana dute oinarri. Horrela gertatzen da, adibidez, udalerrri txikienetan Eskolako Agenda 21 Foroekin edo Tokiko Agenda 21 Foroekin eta Gaikako Tailerrekin.

Halaber, eskualde-erakunde batzuek eskualde-mailako parte-hartze mekanismoak gidatzen eta kudeatzen dituzte, atxikitako udalekin batera. Hona adibide batzuk, erreferentzia gisa:

- Goierriko Udalerrria – Enpresa Foroa eta gizarte, ekonomia eta ingurumeneko eskualdeko foroak.
- Nerbioi – Ibaizabaleko eskualde-koordinazioko Mahai Teknikoak.
- Debarrenako Tokiko Agenda 21 Aholku Kontseilua.

Nabarmentzekoa da eskualde mailako parte hartzeko mekanismoen papera, arrazoi hauen-gatik:

- Aplikazio-eremua eskualdea denez, irismen geografikoa udalarena baino handiagoa da.
- Esparru egokiak dira Tokiko Ekintza Planetan jasotako udalerriz gaindiko gaiak aztertzeko eta segimendua egiteko; lurraldearekin, baliabideen eta zerbitzuen kudeaketarekin eta abarrekin lotutako gaiak, adibidez.
- Eskualdeko eragile eta erakunde politiko, tekniko, sozial eta ekonomikoak biltzen dituzte.
- Tokiko Agenda 21en kudeaketa, eta, beraz, parte hartzeko tokiko mekanismoena, sendotzeko balio dute.

Alabaina, eskualde mailako parte hartzeko mekanismoek muga bat dute: herritarren presentzia eta parte-hartze txikiagoa, neurri handi batean, erakunde horien beren erabakietatik eratorria. Nola edo hala, herritarren ikuspegia galdu egiten da, elkarriketetan bildutako ideia hauek adierazten dutenez:

“Eskualdeko foroetako herritarren parte-hartzea hobetu beharreko gaia da. Mugatua da oso; foroak ez dira irekiak”.

“Eskualdeko foroa herritarrek parte-hartzeko zabalik zegoen hasieran, baina orain ez; interes partikularrak zirela eta gunea “distortzionatu” egin zutela ikusi zen.

(Banakako elkarriketatik bildutako ekarpenak)



3. Esperientzia ona:

Tokiko Agenda 21 Aholku Kontseilua Debabarrena eskualdean.

Debegesa Debabarreneko Garapen Ekonomiko-rako Elkartearen gidaritzan eta koordinaziopean ekin zion 2000an Debabarrena eskualdeak bere Tokiko Agenda 21 diseinatzeari. 2003an onartu zen Eskualdeko Ekintza Plana. Denbora-tarte horretan, Eskualdeko Tokiko Agenda 21 Foroa eratu zen, azken dokumentuari ekarpenak egiteko. Dena den, Eskualdeko Ekintza Plana onartu zenetik ez da gehiago bildu Foroa.

Kasu honetan, Aholku Kontseilua izan da eskualdean iraunkortasuna sustatu eta landu duena. Aholku Kontseilua bazegoen lehenetik, eta Debegesa erakundearen barruan lan egiten zuen. Batzorde aholku-emailea da, eta zenbait alderdi eta arduradun politiko, enpresa, sindikatu, ikastetxe, talde ekologista eta herritarrek osatzen dute. Aholku Kontseilua, nolabait, sortu diren parte-hartze mekanismoak elkartuz joan da koordinazioaren, eraginkortasunaren eta efikaziaren mesedetan.

Aholku Kontseiluak funtsezko eginkizuna bete du "Debabarreneko Garapen Iraunkorrerako Estra-

tegia 2020. 2006-2010 Ekintza Plana" dokumentuaren idazketan, baita epe laburreko jardueren betetze-mailaren sei hilez behingo segimenduan.

Izaera betetzaileragoa duten parte hartzeko beste mekanismo osagarri batzuetan –esate baterako, mugikortasun-foroan–, Deba ibaia foroan, Business Forumen edo turismo-mahaietan egindako lanarekin sendotzen da Aholku Kontseiluaren zeregina.

Hau ikasi dugu Debegesaren esperientziatik: garrantzitsua eta onuragarria da parte hartzeko egitura edo mekanismo berriak sortu aurretik lehenetik dagoena aztertzea, eta ahal bada, premia berrietara egokitzea, horien ibilbidea eta eragile-mugimendua baliatzea, berriak gehitzea eta lanean segitzea.

Saiakuntza honi buruzko xehetasunak ezagutu nahi izanez gero, kontsultatu Debegesaren webgunea: www.debegesa.com



4.5 Herritarren parte-hartzearen udal-planifikazioa premia berria da, eta erantzuna behar du.

Denborak aurrera egin ahala, aldatu egin da udal-kudeaketan herritarren parte-hartzeak duen garrantzia eta txertatze-maila. 2000z geroztik, Tokiko Agenda 21ek ahalegin handia egin du parte-hartzea udal-agendan txertatzeko; are gehiago, lehenengo parte-hartze saiakuntzak abiarazi dituen faktorea izan da udal askotan.

Udaletako beste programa eta plan sektorial batzuek ere garrantzitsutzat jo izan dute gero taldeen eta herritarren ekarpenak izatea. Horra, adibidez, euskara-, gazteria-, berdintasun- eta immigrazio-planak, eta, berriki, hirigintza- eta hiri-antolamendu planak.

Hori dela eta, udalek eta erakundeek sustatzen duten herritarren parte-hartzea planifikatu behar dela dio jende askok.

“Gure herrian parte hartzeko kultura badago, baina, parte-hartzearen planifikazioa ongi finkatu behar dugu, denok zeregin guztietan ezin gara jardun eta. Bestela, erre egiten gara”.

“Udal-sailen arabera irekitzen ditugun parte-hartze prozesuei buruz hausnarketa egin behar dugu, eta ikusi elkarren artean nola koordinatzen eta erlazionatzen garen, egin beharreko guztira jende bera konbidatzen ari garelako, agian. Bestetik, kontuan hartu behar dugu jendea etengabe mobilizatuta izateak baduela kosturik”.

(Banakako elkarrizketatik bildutako ekarpenak)



Etorkizuneko erronka hori lantzeko, ezinbestekoa da Tokiko Agenda 21eko parte hartzeko prozesuetan ikasitakoa aintzat hartzea.

Hau erakutsi digu Tokiko Agenda 21ekin bildu dugun esperientziak:

- Tokiko Agenda 21 Foroa parte hartzeko beste ekintza eta mekanismo batzuekin osatzea komeni da. Tokiko Agenda 21 Foroa urtean behin edo bitan biltzeak segimendu- eta planifikatze-lanak egiteko bakarrik ez du emaitza onik ekartzen. Horrela sortuz gero, informaziogune bihurtzen dira, eta zaila da herritarren atxikimendua eta, ondorioz, haien egonkortasuna eta iraunkortasuna lortzea.
- Garrantzitsua da herritarrek Tokiko Agenda 21eko fase guztietan parte hartzea: Ekintza Planeko proiektuen diseinuan, zehaztapenean, exekuzioan eta ebaluazioan. Tokiko Agenda 21 zirkulua herritarrekin ixtea da gakoa.
- Parte hartzeko mekanismoak, komunikazio-kanalak, lan egiteko erak... dibertsifikatu behar dira, eta talde eta banakoen aniztasunean jarri behar da arreta.

Parte hartzeko mekanismoen dibertsifikazioaren eta berrikuntzaren inguruan egindako hausnarketak ekarri dituzte elkarrizketatutako pertsonak:

“Tokiko Agenda 21eko parte-hartzea sendotzeko, bide, metodo, dinamika eta lan egiteko era berriak diseinatu behar dira. Gune eta mekanismo berriak pentsatu behar ditugu, eta kontuan hartu arratsaldeko zazpitan parte hartu ezin duen jendea ere badagola. Jendearengana iristeko beste modu batzuk ere, errazagoak eta gertuagokoak, aurkitu behar ditugu, eta, horretarako, Interneten eta teknologia berrien garrantzia aztertu”.

“Prozesu irekiagoak diseinatu behar ditugu, ez tailerrak edo bilerak bezain itxiak. Jendearekin zuzeneko harremana bilatu, kalean, monitoreen bidez, erakusketekin edo ordenagailuekin...”.

“Parte hartzeko sistema berria diseinatzen ari gara gure udalerrirako. Alde batetik, foro bat, parte-hartze mekanismo kualifikatu egonkorra eta presentziala, eta, horren osagarri, foro sektorialak, foro birtual bat eta herritarrei horren guztiaren berri emateko beste ekintza zehatz batzuk”.

(Banakako elkarrizketatik bildutako ekarpenak)



4. Esperientzia ona:

Herritarren parte-hartzearen planifikazioa Amurrion.

2001eko otsailaren 23an Tokiko Agenda 21 Herritarren Parte Hartze Foroa sortu zen Amurrion, gaur egun Arnasa Iraunkortasuneko Foroa deitzen dena. Helburu nagusia zuen “gizarte osoaren interesak ordezkatzeko herritarren parte-hartzerako organo aholku-emaile gisara iraunkortasun gaietan”.

Orduetik hona, Amurrioko Udalak ekintza ugari egin ditu alor honetan, eta ekintza horien ondorioa da herritarren parte-hartzea planifikatzeko beharra.

Amurrioko Udalak, Parte Hartuz (EHU) ikerketataldearen laguntzarekin, parte-hartzeari buruzko lehenengo diagnostikoa egin zuen 2004an. Bestela esanda, udalerriko parte-hartzea, parte-hartze horren ahulezia, aukera eta indarra, parte hartzen zuten talde, erakunde eta pertsonen eginkizunak eta haien arteko harremanak aztertu ziren. Amurrion herritarren parte-hartzea eraikitze oinarri izango ziren jardun-lerroak zehaztea zen helburua.

Parte-hartzeko zenbait egitura eta mekanismo sortu ziren, auzo batzarrak edo foro sektorialak

kasu. Eta, denborarekin, herritarren parte-hartze hori antolatu eta egituratu beharra zegoela ikusi zen. Eman zituzten pausoen artean, hauek daude:

- Zenbait talde eta erakunderekin batera, parte-hartzeari buruzko udal-araudia prestatu zen, Amurrion herritarren parte-hartzea antolatzeke, bideratzeko eta errazteke. Aintzat hartu zen arauak soilik, besterik gabe, ez dutela parte-hartzea sustatzen. Xehetasunak jakiteko, ikus 06/06/28ko ALHAO, 72. alea.
- Herritarren Partaidetzarako Zinegotzigoa sortu zen.
- Udaleko parte-hartzearen agenda prestatu zuten, udaleko parte-hartze mekanismoetan; adibidez, herritarrek parte-hartzeko Kontseiluan, foro sektorialetan (arnasa kasu) eta lurralde- edo auzoko batzarretan, udal-proiektuekin.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu udaleko web-orria www.amurrio.org

5. Esperientzia ona:

Atxondoko ereduak.

Atxondok 2006an ekin zion Tokiko Agenda 21 prozesuari, jarrera eszeptiko samarrarekin hasieran, udalari udalerrriaren onuran zenbateraino emango zuen jakiteke.

2007ko udal-hauteskundeetan gobernu-aldaketa izan zen, eta gobernu-talde berriak konpromisoa hartu zuen Tokiko Agenda 21 udalerrientzako tresna baliagarri bilakatzeko.

Lehendabizi, udal-aurrekontuak prestatzean, Tokiko Agenda 21 eta Tokiko Ekintza Plana koordinatu zituzten. Erabaki hauek hartu zituzten:

- Aurrekontua prestatzeko eta onartzeko epeak aurreratzea.
- Aurrekontuei buruzko eztabaida Tokiko Agenda 21en, eta, beraz, parte hartzeko mekanismoetan txertatzea. Horrela, udal-arduradun, gizarte-eragile eta herritarrak batera aritzen dira udalerrriaren beharrak, behar horien kostuak eta dituzten baliabideak aztertzen, eta lehentasunak ezartzen dituzte, gero behin betiko aurrekontuetara eramateko.

Horrela koordinatzen eta antolatzen dira parte hartzeko Atxondon martxan dauden mekanismoak:

Udalbatza

Herritar guztiei irekia dago, eta hilean behin egiten du bilkura. Udalerrian banatutako informazio-panelen bidez egiten da deialdia, eta udalbatzaren jardueraren berri udal-aldizkarian ematen da 3-4 hilean behin. Gaia zein den, jende gehiago edo gutxiago joaten da, baina batez beste 10 bat lagun biltzen dira.

5 udal-batzorde

Publikoak dira, eta hilean behin egiten dute bilera. Udalbatzara eraman baino lehen gaiak aztertzea da euren egiteko nagusia. Udal-ordezkariez gain, batzorde bakoitzean hiruzpalau herritarrek parte hartzen dute, batez beste.

Tokiko Agenda 21 Foroa

Beste gai garrantzitsu batzuen artean, aurrekontuena aztertzen du. Gune honetan, 10-15 lagun inguruk parte hartu ohi dute.

Herri Batzarrak

Gai bereziren bat sortzen denean deitzen dira; adibidez, Bilbo Bizkaiko Ur Partzuergoan sartzea, abiadura handiko trena edo hiri-antolamenduko plan orokor berria. Batez beste, 20-30 bat lagun joaten dira.

Atxondoren alde ekarpenak egin nahi duen orori horretarako aukera ematea da parte hartzeko mekanismoen aniztasunaren helburua. Mekanismoak, datak, gaiak eta abar koordinatzeko ahalegin handia egitea eskatzen du, baita komunikazioan ere. Gai horri dagokionez, Udalak hainbat kanal erabiltzen ditu: udalaren webguneko agenda, "Udaletik herrira" udal-aldizkaria, udaleko informazio-panelak, etxez etxeko banaketa, eta abar.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu udaleko web-orria <http://www.atxondo.net>

6. Esperientzia ona:

Gasteizko herritarren partaidetzako gida-plana.

2008ko uztailan, talde politikoekin, elkarrekin eta sailetako teknikariek eginiko parte-hartze prozesu zabal baten ondoren, herritarren partaidetzako gida-plana 2008-2011 onartu zuen Gasteizko Udalak. Tokiko gobernuek gizartearen eraldatze konplexuei inoren laguntzarik gabe aurre egin ezin dietenez, gizarte-eragileen atxikimendua eta horien arteko lan koordinatua gero eta beharrezkoagoa dela abiapuntu hartuta, Udalak herritarrek parte hartzeko jarduerak zehazteko erabakia hartu zuen.

Hiru galdera hauei erantzuteko jarraibideak eta irizpideak ezartzen ditu plan zuzentzaileak:

- Zein gaitan parte hartuko dute gasteiztarrek?
- Nork parte har dezake?
- Nola antolatuko da parte-hartzea?

Gasteizko Udalak herritarren partaidetzako gida-plana ezarri zuen, herritarren partaidetzako jarduerak antolatzeko tresna moduan.

Herritarrek parte hartzeko bere eredia sortu du Udalak, eta alderdi hauek zehaztu ditu:

- Parte hartzeko organo iraunkorrak: sektore-kontseiluak, lurralde-kontseiluak eta udaleko gizarte-kontseilua.

- Herritarren Partaidetzako Udal Zerbitzuaren eginkizuna eta baliabideak.
- Parte-hartze agenda. Hori da planaren alderdirik berritzaileena. Parte hartzeko kontseiluen eta organo iraunkorren lan-agenda planifikatzeaz gain, legegintzaldian herritarren parte-hartze prozesuen beharra izango duten udal-proiektuak identifikatzen ditu. Proiektu bakoitzean parte hartzeko zer eduki landuko diren, noiz landuko diren eta nola landuko diren azaltzen du.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Gasteizko herritarren partaidetzako gida-plana 2008-2011 www.vitoria-gasteiz.org webgunean, herritarren parte-hartzea atalean.

Antzeko beste esperientzia on bat Donostiako Herritarren Partaidetzako Plan Zuzendaria da. www.donostia.org webgunean dago ikusgai, hiria/herritarren partaidetza atalean.

4.6 Asko ikasi eta sakondu da parte-hartzearen diseinuari eta praktikari buruz, baina asko dago oraindik egiteko.

Udal- eta eskualde-mailako lehenengo Tokiko Agenda 21 parte-hartze saiakuntzetatik parte-hartzearen diseinuari eta kudeaketari buruzko ikaskuntza metatu da.

Partaidetza-mekanismo zehatz bat kudeatzetik (esaterako, Tokiko Agenda 21 Foroa), parte-hartze prozesuen diseinuan pentsatzen hastera pasatu da administrazioa:

- Herritarren parte-hartzearekin zertarako eta zergatik lan egiten den argumentatzea.
- Zein inplikatzeko duen zehaztea.
- Jarduera-esparrua, mugak eta joko-arauak zehaztea.
- Nola gauzatuko den, zein une eta tokitan, diseinatzea eta kontratatzea.
- Bitartekoak planifikatzea.
- Parte hartzeko prozesu ororen beharrezko hiru baldintza hauetan sakontzea: informazioa eta komunikazioa, segimendua eta ebaluazioa, eta konpromisoak.

Iturria: Nola garatu kalitatezko partaidetza-prozesu bat? Gida praktikoa.

Gai horiek gogoan izan ditugu parte hartzeko mekanismoetan, nahiz eta agian ez dugun jakinarren gainean egonik egin.

Zergatik eta zertarako

Zergatik eta zertarako esanda dago. Herritarren parte-hartzea ezinbesteko baldintza da Tokiko Agenda 21en diseinu-fasean, eta beraz, ez da udal-hausnarketaren ondorio izan. Eraitza positibo gisara, parte-hartze saiakuntzak bideratzeko aukera eman du derrigortasun horrek, beldurak, errezeloak eta eskarmenturik eza egonda ere.

Baina eztabaida faltak, udalaren etsipenak eta parte-hartzearen plangintza ezak udalerrri eta eskualde batzuetan parte hartzeko mekanismoek aktibo ez irautea ekarri dute.

Nork hartzen du parte?

Parte hartzeko mekanismoetan pertsonak eta diskurtsoak anizkoitzak izaten saiatu gara. Udal-arduradunen esanetan, udalerrri handienetan errazagoa da antolatutako taldeetara iristea eta talde horiek inplikaraztea, banakako herritarrengana iristea baino. Biztanle gutxiko udalerrrietan, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da; izan ere, gertutasun handiagoa dago udalaren eta herritarren artean.

Udalerrri batzuetan soziogramak egin dira, biztanleriaren osaera ezagutzeko eta biztanleen arteko harremanak eta gizarte-sareak xehe ezagutzeko helburuarekin. Gizarte-egitura eta populazioaren aniztasuna hobeto ezagutzeko tresna baliagarria da.

“Parte hartzen duten pertsonen kopurua baino garrantzitsuagoa da herriaren pluraltasuna eta aniztasuna islatzea”.

(Banakako elkarrizketa)




Hau da martxan dauden Tokiko Agenda 21 Foroen osiera, batez beste:

- Parte-hartze publikoa % 49 da: arduradun politikoak, tokiko teknikariak eta beste zerbitzu publiko batzuk.
- Parte-hartze pribatua % 51 da: elkarteak, enpresak, dendak, sindikatuak eta herritarrak.

Erakundeek Tokiko Agenda 21 prozesuei, oro har, eta Tokiko Agenda 21 Foroari, bereziki, emandako bultzadaren isla dira datu horiek (ikus 6. irudia).

6. Irudia. Zer eragilek parte hartzen dute aktibo dauden Tokiko Agenda 21 oroetan?




Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Parte hartzen duten herritarren profilak ikusita, ondorio hauek atera daitezke:

- Presentzia txikiena duten profilak hauek dira: immigranteak, minusbaliatuak, gazteak eta zaharrak.
- Haur eta nerabeen parte-hartzea Eskolako Agenda 21 Foroaren bidez bideratzen da.
- Emakumeen presentzia nabarmena da parte-hartze mekanismo guztietan.

Hori guztia 7. irudian islatzen da.


7. Irudia. Biztanle-profil zehatzen presentzia: nahikoa ordezkaturata daude aktibo dauden parte-hartze mekanismoetan?



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Zenbat jende parte hartzen du iraunkorki eta aldian-aldian aktibo dauden parte-hartze mekanismoetan? Erantzuna aldatu egiten da udalerrriaren arabera (ikus 8. irudia).

8. Irudia. Zenbat jende joaten da aldian-aldian aktibo dauden parte-hartze mekanismoetara?



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

2008ko parte-hartzearen kopuruak kontuan hartuta, 12.516 bertaratze izan ziren, guztira, Tokiko Agenda 21eko mekanismo aktiboetan. Hau izan zen parte-hartzeko mekanismo aktibo guztietako parte-hartzearen batezbestekoa:

2. Taula. 2008ko parte-hartze mekanismoetako batez besteko parte-hartzea bilkura bakoitzeko.

Tokiko Agenda 21 Foroa	Eskolako Agenda 21 Foroa	Udalerria - Enpresa Foroa	Ingurumeneko Batzorde Sektoriala	Garapen Iraunkorreko Batzordea	Gaikako tailerrak lantaldetan	Beste zenbait: Herri Batzarrek...	Parte-hartzaileen batezbestekoa, bilkurako
18,88	30,45	12,8	22,11	10,18	18,6	29,4	

Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.


Jarduera-esparrua, mugak eta joko-arauak

Eztabaidaren edukia eta muga teknikoak, eskumenen alorrekoak, ekonomikoak eta/edo politikoak aurrez zehaztea garrantzitsua dela erakutsi digu esperientziak, prozesuaren jokalekua finkatzen laguntzen baitute. Horrez gain, lortuko diren emaitzekiko hartzen den konpromisoa jaso behar da.

Udal-konpromisoari dagokionez, aktibo dauden parte hartzeko mekanismoak nagusiki informazio- eta/edo aholku-emaileak dira. Baina, hala ere, horietako askotan hartutako erabakiak

gauzatu egiten dira, nahiz eta ez diren modu formalean jasotzen. Hau da, azken erabakietan eragina dute, eta, neurri batean, izaera erabakitzailea dute.

9. Irudia. Nolakoak dira parte-hartze mekanismo aktiboak?



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdeetgia.

Nola?

Nola bideratu parte-hartzea, zer metodorekin, zer unetan eta zer tokitan?

Esperientziak erantzunak lortzeko aukera eman digu. Hala ere, sakondu beharreko gaiak dira. Sormena, berrikuntza, teknika berriak..., lan-metodoaren premisak izan behar dute, eta parte-hartze prozesuen diseinuan txertaturik egon.

Metodoa eta teknikak

Aurkezpena, informazioa eta eztabaidak dira metodorik erabilienak. “Kolorezko txarteltxoak erabiltzetik” haragoko talde-dinamika berritzaileak erabiltzeko ohitura ez dago hedatuta, oro har. Gai horri buruz, ideia hauek jaso ditugu, besteak beste:

“Hobetu beharreko alderdietako bat bilera-dinamika bera da. Ez da dinamizatze-lanik egiten, eta ez dira denborak kontrolatzen. Pertsona batzuen hitz-jarioak ere ez dira kontrolatzen”.

“Udal-teknikariak moderatu egiten du, eta ez ditu erabiltzen eztabaida errazteko edo laguntzeko dinamika espezifikoa”.

“Nik neuk moderatzen dut. Eta nire eskema oinarrizkoa da: gai-zerrendaren aurkezpena, alkatearen/zinegotzien azalpenak, eta txanda irekia”.

“Gure foroan dinamizazio-arazo bat izan da. Talde-lanik ez dago eta jende asko “kexatzera” joaten da, eta ez dugu hori mozten jakin”.



(Banakako elkarrizketatik bildutako ekarpenak)

Lekua

Pertsonen presentzia fisikoa garrantzitsutzat jotzen da parte hartzeko prozesuetan, elkar ezagutza, besteari entzutea, esperientziak partekatzea eta proposamenak elkarrekin sortzea errazten duelako.

Parte hartzeko mekanismo birtualak sortzearen egokitasunari dagokionez, beste profil batzuetako parte-hartzaileengana iritsi ahal izateko mekanismo presentzialen osagarri direla uste dugu, baina ez dira haien ordeko.

Denbora


Ezinbestekoa da herritarren eta administrazioaren erritmo-aldea eta ordutegiak txertatzea eta kudeatzea.

Baliabideak

Parte-hartze prozesua planifikatzeko, behar diren baliabideak jarri behar dira, adibidez:

- Pertsonak
- Ekonomikoak
- Materialak
- Informatikoak
- Denborazkoak

Garrantzitsua da administrazioak teknikari prestatuak izatea, parte-hartzea planifikatu eta dinamizatzeko eta komunikatzeko gai direnak. Alde horretatik, udalerriek modu positiboan baloritzen dute Udalsarea 21 osatzen duten erakundeentzako gai honetarako dagoen finantziario-lerroa, dinamizatzeko talde espezializatuak kontratatzeak aukera ematen duelako.



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

7. Esperientzia ona:

“Nola gauzatu kalitatezko parte-hartze prozesu bat? Gida praktikoa” dokumentua, EAEko eztabaida-prozesu parte-hartzaile baten emaitza.

2008an, Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Parte Hartze Zuzendaritzaren koordinaziopean, herritarren parte-hartzeari buruzko lantalde bat sortu zen.

Besteak beste, helburu hauek zituen:

- Herritarren parte-hartzea bultzatzea kudeaketa publikoko arlo guztietan.
- EAEn gai horri buruzko eztabaida, hausnarke-ta eta jarduera koordinatuak sustatzeko sare bat osatzea.

“Nola gauzatu kalitatezko parte-hartze prozesu bat? Gida praktikoa” dokumentua, EAEko eztabaida-prozesu parte-hartzaile baten emaitza.

Talde sustatzaile horretan, beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin batera, lhobek parte-hartze aktiboa izan du, Udalsarea 21eko idazkaritza teknikoaren zegoan eta.

2008an eta 2009an, talde horrek herritarren parte-hartzeari buruzko hausnarketa-prozesu bat egin zuen herrian. Horretarako, EAEko zenbait udal-tako politikari, teknikari eta talde sozialen laguntza izan zuen. Udal horietako batzuk Udalsarea 21eko kideak dira.

Denbora-tarte horretan partekatutako lanaren emaitza dokumentu hau izan da: “Nola gauzatu kalitatezko prozesu parte-hartzaile bat? Gida praktikoa”. Dokumentu horren helburua da kalitatezko prozesu parte-hartzaileak gauzatzeko oinarritzko elementu eta irizpideak jasotzea.

Horretarako, prozesu parte-hartzaileak testuinguru-jarri eta zehazteaz gain, 8+3 formula ezartzen du: funtsezko 8 pauso eta beharrezko 3 baldintza prozesu parte-hartzailearen garatzeko estrategian.

Hauek dira 8 pausoak:

1. Zergatik egin nahi dugu prozesu parte-hartzailea?
2. Zertarako egiten dugu prozesu parte-hartzailea?
3. Nork hartuko du parte prozesuan?
4. Zein dira arauak?
5. Nola gauzatu dugu?
6. Noiz egingo dugu prozesua? Denbora-tarteak eta erritmoak
7. Non egingo da? Ereduak eta tokiak
8. Zer baliabideekin egingo dugu?

Hauek dira prozesu parte-hartzailearen hiru baldintzak:

1. Informazioa eta komunikazioa
2. Segimendua eta ebaluazioa
3. Konpromisoak

Edukiari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu EUELen webgunea: <http://www.eudel.net/aNG/web/eus/argi/liburu/index.jsp>

8. Esperientzia ona:

EAEko zenbait udalerritan herritarren parte-hartzearen diagnostikoak: Arrigorriaga, Etxebarri, Audio, Muskiz, Mungia, Ordizia...

Batzuetan, udal edo erakunde publikoek herritarrekin edo antolatutako taldeekin lan egin nahi dute, haien interesak, ohiturak, erreferentziak, tokiak eta eremuak, elkarrekiko harremanak edo antolaketa ezagutu gabe, eta parte hartzeko eta partaidetza bideratzeko benetako aukerak aztertu gabe.

Partaidetzaren diagnostikoen helburua da parte hartzeko zailtasunak eta aukerak ezagutzea, aztertea eta balioztatzea, eta eremu jakin batean (auzoan, herrian, hirian...) elkarrekiten duten eragile, erakunde, talde eta herritarren arteko harremanak ezagutzea. Parte hartzeko estrategia bat diseinatu eta garatu aurretik egiten dira diagnostikoak, lurralde edo eremu sektorial jakin bateko eragile, erakunde eta pertsonen laguntzarekin.

Parte-hartze diagnostikoak egiteko teknika erabilgarri bat eragileen mapak eta/edo soziogramak dira. Behaketaren eta testuinguruaren bidez egiten dira, eta erkidego bateko pertsonen arteko harremanen, haien antolaketa- eta talde-kohezioaren nondik norakoa erakusten dute.

Asko dira parte-hartze globalari edo sektore- eta lurralde-eremuetako partaidetzari buruzko diagnostikoak egin duten EAEko udalerrak. Hauek dira udalerrak horietako batzuk: Amurrio, Arrigorriaga, Basauri, Berriz, Bilbo (generoaren gaian), Donostia (auzo jakin batean), Etxebarri, Audio, Mungia, Muskiz, Ordizia... Horietako asko Parte Hartze eta Garapen Komunitarioari buruzko EHUko Masterraren esparruan egin dira, Parte Hartze ikerketaldeen koordinazioan.


4.7 Herritarrekiko harremana eta hurbiltasuna ebatzi gabeko gai kezagarria da.

Udalek etengabeko bi kezka izaten dituzte: nola gerturatu gehiago eta hobeto herritarrengana, eta nola gerturatu talde eta pertsona ezberdinengana.

Herritarrengana gerturatzen eta haiekin komunikatzen laguntzeko, Tokiko Agenda 21eko teknikariek hau eskatzen dute:

- Komunikazio-tresnak eta –teknikak.
- Trebakuntza herritarren parte-hartzearen arloan.
- Dinamizazioari bultzada ematea tekniken eta dinamiken bidez.

11. Irudia. Zer baliabide iruditzen zaizkizu garrantzitsuak Tokiko Agenda 21ean herritarren parte-hartzea indartzen jarraitzeko?



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Gizarte-eragileek eta herritarrek elkarriketetan emandako ideiak, komunikazioa hobetzeko:

- Ezinbestekoa da egiten dena jakinaraztea eta partaidetzaren emaitzak ikustea. Horrek pertsonen ilusioari eta konpromisoari eusten laguntzen du. Gauzatu ezin diren ekintzarik baldin badago, garrantzitsua da zergatia azaltzea.
- Beharrezkoa da Udaleko pertsonekin elkarrekintza eta gertutasuna errazten duten taldeguneak sortzea, loturak sortzeko.
- Garrantzitsua da interesen, auzoen eta herriko taldeen arabeko komunikazio pertsonalizatua zaintzea. Garrantzitsua da, halaber, helburuko publikoaren arabera komunikazio-kanalen eta parte-hartze mekanismoen tipologiaren dibertsifikazioa artatzea.
- Horrez gain, kontuan izan behar dugu gure gizarteak garrantzi handia ematen diola pribatasunari eta banakotasunari.

Komunikazio gehiago eta hobea izateko, komeni da pertsonak parte hartzera bultzatzen dituzten arrazoiak ezagutzera eta kontuan hartzea. Hauek dira gai horri buruzko ideia errepikakor batzuk:

“Inguruarekin dudan konpromisoagatik; gizarte zibilaren garrantzia sinesten dudalako”.

“Herritar gisa dudan betebeharra dela uste dudalako”.

“Hemen bizi naizelako, eta udalerrri hobea eta bizigarriagoa lortzen esku hartu behar dudala uste dudalako”.

“Etorkizuna gutako bakoitzaren esku dagoela uste dudalako. Elkarrizketan, eztabaidan eta guztien ideien bidez herri hobea sortzean sinesten dut”.

“Nire barne-funtsagatik, nire izaeragatik. Nire filosofiagatik: toki batean bizi banaiz, hango parte naiz. Bestalde, zenbat eta hobeto egon ingurua eta bertan bizi den jendea, orduan eta hobeto denontzat. Ikasi egiten dudalako eta pertsonalki gogobetetzen naudelako”.

“Kuriostate pertsonal eta profesionalagatik. Bizitzeko eta sentitzeko. Hasieran, zenbait gauzarekin haserretu egin nintzen; gero, ordea, zaletu eta nire ekarpena egitera bertaratzen nintzen”.

“Bizitzeko atsegina eta ona den herri bat eraiki nahi badugu, denok parte hartu beharra dugulako, beti besteei errua bota eta kexaka ibili beharrean”.

“Konpromiso pertsonalagatik eta talde-konpromisoagatik”.

“Ingurumenak eta naturak arduratzen nautelako. Tokiko Agenda 21 tresna ona dela uste dudalako; hasieran, behintzat, filosofia ona da”.

“Ez dakidalako ezetz esaten; beti egon izan naizelako inplikaturatuta. Zinegotzia izan naiz denbora luzez, eta bakarrik sentitzen nintzen. Nahiz eta orain ezin dudan erabaki, nire herriarengatik zerbait egiteko beharra sentitzen dudalako, ezagutzeko, iradokitze, eta proposamenak egiteko. Ahaleginak bateratu, entzun eta proposamenak egiteko”.



(Banakako elkarrizketatik bildutako ekarpenak)

9. Esperientzia ona:

Parte-hartzea auzoka antolatzea. Muskizeko Udalak herritarrengana eta lurraldera hurbiltzeko duen modua.

2009an, Muskizeko Udalak, Ingurumen eta Partaidetza Sailaren eskutik, partaidetza deszentralizatzeke apustua egin zuen, herritarrengandik eta taldeengandik gertuago egoteko.

Horretarako, zarata eta mugikortasunari buruzko gaikako foroek gain, udalak 8 herri-foro antolatu ditu Muskizeko auzo eta guneeetan.

Hauek dira udal-planteamendu horren helburuak:

- Herritarrengandik gertu egotea, eta komunikazio erraza eta jarraitua bultzatzea.
- Eremu bakoitzeko errealitatea, beharrak eta proposamenak xehe ezagutzea, premisa honi jarraiki: "Gure begiak dira".

Muskizeko auzoetako parte-hartzea oso handia izan da. Hauek izan dira emaitza zehatzak:

- Auzoen koordinazioa eta barne-antolakuntza, proposamenak egiteko eta udalarekin eztabaidatzeko.
- Udaleko barne-antolakuntzan aldaketak, egingako lan parte-hartzaileari erantzuna emateko eta hura itzultzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu web-orri hau: www.muskiz.org

10. Esperientzia ona:

Auzoetako udal-batzarren hausnarketa- eta indartze-prozesua Laudion.

Laudioko auzo-batzarrak udalerriko parte-hartze mekanismo errotuenak eta ezagunenak dira. 1977an sortu ziren, udal-kudeaketaren alternatiba gisara. Hainbat fase igaro ondoren, egun lanean dira.

Laudioko auzo-batzarrak, 2000. urtean onartutako antolaketa-araudiari jarraiki, kontsulta-organoak dira, "auzokoek, erakundeek eta herriko taldeek udalerriko auzi publikoetan parte hartu eta laguntzeko". Orduetik hona, parte-hartze mekanismo horrek bi etapa igaro ditu.

Lehenengoan, "kexa orokorren postontzi moduko bat" zen.

Bigarren etapan, 2007ko bileren ondoren, funtzionamendua hobetzeko, eta herritartasuna sustatzeko zuen funtzioa indartzeko, Laudion udalak hausnarketa bateratua egin zuen.

Oraindik aktibo dagoen parte hartzeko prozesu horretan, Laudion auzo-batzarretako kide diren pertsona eta erakundeek parte hartzen dute. Zenbait fasetan garatu da prozesua:

- Prozesuaren diseinua, parte-hartzean espezializatutako pertsona-talde batekin.
- Auzo-batzarren parte-hartzearen diagnostikoa: funtzionamendua, arazoibideak, pertsonen arteko harremanak, erakundeak eta auzoak aztertu ziren, eta arreta berezia jarri zen emakume eta gazteengan.

- Diagnostiko-prozesua bermatu zuen talde-eragilearen eraketa.
- Batzarrak berriro definitzeko proposamenak, xehetasun guztiak kontuan hartuta, harremanezkoak barne.
- Batzarrak hobetzeko neurriak abian jartzea. Antolaketa-neurri hauek azpimarratu behar dira: auzoaren alde lan egitera prestatu diren pertsonen osatutako auzo-taldeak eratzea, eta segimendu- eta koordinazio-batzorde bat eratzea, hauen partaidetzarekin: alkatea, alderdi politikoetako ordezkari bana, teknikariak eta auzo bakoitzeko bi pertsona gehienez.

Prozesuak aurrera jarraitzen du. []

Esperientzia on honetan Laudion udalak egingako apustu garbia nabarmendu beharra dago, herrian errotuta zegoen baina hainbat faktoreren-egatik funtzionatzen ez zuen parte-hartze mekanismo bat hobetzeko.

Hauek dira emaitza zehatz batzuk:

- Sare sozialak sortu dira.
- Informazio- eta komunikazio-kanalak indartu dira.
- Komunitatearen aldeko posizioetara aldatu dira eskalak.
- Udalaren eta herritarren ordezkartza duen partaidetzagune egonkor bat sortu da.

Prozesuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Laudion Udalean.

11. Esperientzia ona:

Herri Batzarren funtzioa Albiztur, Alkiza, Bidegoian eta Larraulen.

Tolosaldeako lau udalerrri txiki hauek Tolosaldeako Landa Eremuko Udaltalde 21 pilotuan parte hartu zuten, 2005ean.

Tolomendi, Tolosaldeako Landa Garapen Elkarte, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Iloberekin batera, prozesuaren buru eta koordinatzaile izan zen orduan. Landa-eremuetan herritarren parte-hartzea bultzatzeko modu egokiena aztertu zuten.

Partaidetza hori Herri Batzarren bidez bideratzea erabaki zuten. Herri Batzarrak herri horietako usadiozko parte-hartze mekanismoak ziren. Larraulen, adibidez, galdutako usadio hori berreskuratu zen.

Herri Batzarren funtzionamendu-eskema, Tokiko Agenda 21 Ekintza Plana onartu ondoren indarrean jarraitzen duena, oso sinplea da:

- Herri bakoitzak Herri Batzarretarako deialdia egiten du, gai edo proiektu zehatz batzuei buruz hitz egiteko: arau ordezkatzailleak, uraren kudeaketa, edo ekipamendu berriei buruzko

erabakiak. Esperientziak egiaztatu du gai orokor edo kontzeptualagoek tokiko eragileen eta auzokoen parte-hartzerik ez dutela erakartzen.

- Dinamizazioaz Tolomendi eta Tolosaldea Garatzen arduratzen dira, udaleko ordezkariekin lankidetzan.
- Bileren maiztasuna aldatu egiten da udalerrien arabera, baina, normalean, urtean 4-5 bilera egiten dira.

Herri Batzarrak ostiral arratsalde-gau partean, larunbat-bazkalostetan edo igandeetan egiten dira. Parte-hartze mekanismoak tokiko ohitura, behar eta baldintzetara egokitzearen beharra islatzen du horrek.


Xehetasun gehiago nahi izanez gero, begiratu Tolomendiren **www.tolomendi.net** web-orrian, Tolosaldea Garatzenen **www.tosaldeagaratzen.net** web-orrian, edo Albiztur, Alkiza, Bidegoian eta Larraulgo udaletan.

4.8 Parte-hartze prozesuen ebaluazioa konpondu gabeko arazoa da.

Egindako azterketatik ondoriozta daiteke oso kasu gutxitan egiten dela gai hauen ebaluazio jarraitua:

- Parte-hartze mekanismoen funtzionamendua.
- Esku hartzen duten pertsonen gogobetetze-maila.
- Lan parte-hartzaileak herrian duen integrazioa.

Aztertutako parte-hartze mekanismo aktiboetatik % 21 soilik ebaluatzen da. Mekanismoari dagokionez, hau da xehetasuna:



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

12. Esperientzia ona:

Donostiako Ingurumenerako Aholku Batzordearen ebaluazioa.

Donostiako Ingurumenerako Aholku Batzordea (IAB) 2001ean sortu zen, Tokiko Agenda 21en eratze-prozesuaren barruan. Ordutik hona, Batzordea Tokiko Agenda 21en diseinu-, garapen- eta ebaluazio-faseekin lotuta egon da.

IABren funtzionamendua eta lana formalki hiru aldiz ebaluatu dira: 2001ean, 2005ean eta 2009an. Azken urte horretan, hauek izan dira ebaluazio-metodologiaren oinarriak:

- IABn parte hartzen duten pertsonen iritzia ezagutzeko: balorazio kualitatiboa.
- Lortutako emaitzak egiaztatzea: balorazio kuantitatiboa.
- Hobekuntza-proposamenetan lan egitea.

Alderdi hauek ebaluatu dira:

- IABren helburu eta funtzioak, eta iguripenen betetzea.
- Osaketa: kantitatea eta dibertsitatea.
- Funtzionamendua: ingurua, rolak, metodologia, emandako informazioaren maila eta kalitatea, saioen erregimena, iraupena, tokia eta ordutegia...

Emaitza zehatzei dagokienez, aipatzekoa da egindako ebaluazioei esker hobekuntza-eremuak aurkitu daitezkeela, eta partaideek IABek egindako lanarekin gehiago identifikatzea lortzen dela.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu ingurumen-saila udaleko www.agenda21donostia.com web-orrian.

4.9 Administrazioa eta herritarrak parte hartzen ikasten ari dira, parte hartuz, eta jarrerak eta pertzepzioak aldatzen lagun dezake prozesu horrek.

Prozesu parte-hartzaileetan, eztabaidatu beharreko gaiaz aparte, garrantzitsua da pertsonen arteko harremanak kudeatzea eta zaintzea. Parte-hartze mekanismoak partaideen arteko loturen eraikuntzan oinarritzen dira, eta prozesu horretan ere ikasiz goaz.

Herri bakoitzeko egoerak baldintzatzen du abiapuntua. Hala eta guztiz, elkarrizketetan zenbait jokaera behin eta berriz errepikatzen dira, eta beharrezkoa da horiek behatu eta lantzea. Esate baterako:

- Gidatzen duten eta parte hartzen duten pertsonen beldur eta erresistentziak.
- Herritarrek administrazioarekiko duten mesfidantza eta errezeloa.
- Aurreko frustrazioak eta arrakastarik gabeko esperientziak.
- Ezkutatutako edo enkistatutako gatazkak.
- Eremuen politizazioa.
- Interes pribatuek interes komunitarioen gainetik duten lehentasuna.

Tokiko Agenda 21ean aktibo dauden parte hartzeko mekanismoek joera dute harremanak kudeatzeko eta zaintzeko.

Ezagutza eta elkarren aitortza, komunikazioa, eremu eta hausnarketan partekatzea, bestea ulertzea, enpatia, hurbiltasuna, loturak eta abar sustatzen dituzte partaidetzak eta partaidetzaren dinamizazioak. Beraz, ikasteko eta muga pertsonal eta taldekoak gainditzeko prozesu bat da, norberaren partaidetzarekin indartzen dena.

13. Esperientzia ona:

Sormen-tailerra Legazpin.

2008aren amaieran, Legazpiko Tokiko Agenda 21 Foroak urte osoan egindako lana aitortzeko partaidetza-saio berezi bat antolatu zuen udalak: sormen-tailer bat.

Gaian aditua den pertsona baten laguntzarekin eta parte-hartzearekin sortu zen taldea, eta sormenerako hainbat teknika zehatz probatu ziren. Udalarentzat garrantzitsua da jarrera sortzaileak lantzea, Tokiko Agenda 21eko proposamenak gero eta berritzaileagoak, desberdinagoak eta aberatsagoak izan daitezzen.

Taldearen balorazioa oso positiboa izan zen.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu www.legazpiko-udala.info web-orrian edo Legazpiko Tokiko Agenda 21 Bulegoan.

14. Esperientzia ona:

Hartzaindegi-zerbitzua Muskizen.

Muskizeko parte-hartze mekanismoetan interesatutako pertsona guztien partaidetza errazteko, hartzaindegi-zerbitzu bat eskaintzen du udalak.

Partaidetza-saioek irauten duten bitartean, Gazteguneko profesional batek parte-hartzaileen umeak zaintzen ditu. Egiten diren deialdi guztietan aukera horren berri ematen du udalak, bide hauek erabilia: karta pertsonalizatuak, kartelak, udaleko web-orria edo komunikabideak.

Horrela, ekintza positiborako neurriak eta interesa duen edonori parte-hartze eskubidea bermatzeko helburua bateratu egiten ditu udalak. Zerbitzua-ren balorazioa oso positiboa da, eta horren erakusgarri da etengabe erabiltzen dela.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu **www.muskiz.org** web-orriko Ingurumen eta Herri-tarren Parte Hartzearen atala.

15. Esperientzia ona:

Elorrioko lan parte-hartzailean generoaren gaia integratzea.

Legealdi honetako Elorrioko Hiri Antolamendurako Plan Nagusia (HAPN) birdefinitzeko parte-hartze prozesuak mekanismo eta prozesu haue-tan emakumeek parte hartzeko lehen pausoak ahalbidetu ditu.

Horretarako, berdintasun-teknikariak, Udaleko Tokiko Agenda 21eko teknikariarekin batera, hainbat ekimen gidatu ditu plan berrian emakumeak partaide izan daitezen. Hauek dira neurri horietako batzuk:

- Parte-hartze prozesua dinamizatze laguntza teknikoaren kontratazio pleguan generoaren ikuspegia integratu da.
- Emakumez osatutako talde baten laguntzaz, "hiri debekatuaren" mapa egin da. Emakumeek hiriko gatazka-guneei buruz duten iritzia jasotzen du mapak, arriskutsuak iruditzen zaizkien guneei buruzkoa edo oztopo arkitektonikoak dituzten guneei buruzkoa. Plan orokorraren dokumentuari erantsi zitzaion mapa.
- Emakume-taldeekin eta Elorrioko talde feministarekin HAPNari buruzko lan-biltzar bat egin da, berdintasun-teknikariak dinamizatuta.

- Gaikako bost lan-mahai sortu dira. Horietako bitan, gizonezko eta emakumezkoen partaidetza ia paritarioa izan da; beste hiruretan, berriz, emakumeen presentzia bermatu egin da. Horretan lagundu du emakume-taldeekin eta erakunde feministekin egindako lan pertsonalizatuak; haurrak zaintzeko zerbitzua ere lagungarri izan zaio emakumeen parte-hartzeari.

Esperientzia honetatik nabarmendu behar dira emakumeak txertatzeko ahalegin proaktiboa eta lortutako emaitzak, bai esperientzia horretan, bai udal-erakundearen "mentalitate" aldaketan. Udalerakundea kontuan hartzen hasi da proposatutako ekimen eta prozesuetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea sustatzea beharrezkoa dela. Oraindik lortu gabeko beharrezko sistematizazio eta normalizaziorako lehen pausoa da.

Informazio gehiago **www.elorrio.net** web gunean.

4.10 Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuen bidez egindako lanen hedapena mugatua izan da.

Kanpo-komunikazioa

Tokiko Agenda 21eko herritarren parte-hartze prozesutik sortutako lanaren eta emaitzen oihartzuna eskasa izan da kalean.

Ez da parte hartzeko mekanismoetan egindako lanaren eta lortutako emaitzen berri eman. Tokiko Ekintza Planaren gauzatzeak ekarritako proiektu eta neurrien hedapenari ez zaio arreta handirik eskaini, eta komunikatu denean, ez da Tokiko Agenda 21en esparruan egin.

“Tokiko Agenda 21ek oihartzun txikia du kalean. Jendeak ikusten ditu egindako proiektuak, baina ez dira Tokiko Agenda 21en barruko gisara komunikatzen”.

“Tokiko Agenda 21 gehiago zabaldu behar da, emaitzek agerigokoak izan behar dute. Parte hartzen dudanean nire denbora eskaintzen ari naiz, eta garrantzitsua da lan horrek balio duela ikustea. Horregatik, egiten den lana ezagutzera eman behar da”.

“Komunikazio-arazo bat dugu: bost urte daramatzagu lanean, eta oraindik jendeak ez daki zer den Tokiko Agenda 21 eta zertan dihardugun. Komunikatzeko modu egokia aurkitu behar dugu, agian projektuka, eta jendearengana iristeko beste mekanismo batzuk bilatu behar ditugu”.



(Banakako elkarrizketatik bildutako ekarpenak)

Ondorioz, neurri hauek beharrezkoa dira:

- Proiektu eta neurri zehatzak Tokiko Ekintza Planean egindako planifikazioarekin, eta, bezaz, lagun eta eragile batzuen partaidetzarekin erlazionatzea.
- Herritarren parte-hartzetik eratorritako lana eta emaitzak publikoki aitortzea. Herritarrek herriaren edo eskualdearen alde izan duten arduraldia baloratu egin behar da.

Barne-komunikazioa

Informazio argia eta ulergarria eskura izatea (parte-hartze tailerren edo ekintzen aurretik, haiek gauzatzean eta haiek bukatu ondoren) herritarren parte-hartzea bultzatzeko beharrezko baldintza da. Alderdi hori, hein batean bederen, kontuan hartzen da parte-hartze mekanismoen egungo kudeaketan. Administrazioek arreta jartzen diote gai-zerrendan, tailerrean edo parte-hartze ekintzan, eta, ondoren, laburmen-aktan ematen den informazioari.


Zenbait administrazio ahalegin handia egin dute informazio hori prozesu osoan zehar argi eta erraz emateko, eta alderdi hauek zaindu dituzte, besteak beste:

- Informazioaren argitasuna eta ulergarritasuna. Askotan, dokumentazio teknikoa hizkuntza lau eta ulerterrazagora itzuli behar da.
- Sarean eremuak ireki eta mantentzea, informazioa eta dokumentuak partekatzeko.
- Parte hartu duten pertsonen parte hartu duten ekintza guztietako emaitzen akta edo laburpen-dokumentuak bidaltzea.

Emaitzak itzultzea

13. irudian ikusten den moduan, egindako lana berehala itzultzen da. Baina “a posteriori” emandako informazioari arreta jarri behar zaio parte-hartze prozesutik denbora luze igaro bada eta partaideek landutako proiektuaren egoeraren edo bilakaeraren berririk ez badute.

13. Irudia. Parte-hartze mekanismo aktiboetan lortutako emaitzak itzultzen dira?




Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Hizkuntza

Aktibo dauden parte-hartze mekanismoetan erabilitako hizkuntza aztertu da, komunikazioaren funtsezko alderdi gisa. Udalek eta eskualdeko erakundeek emandako erantzunaren arabera, gai hori modu askotara tratatu da (ikus 14. irudia).

14. Irudia. Zer hizkuntza erabiltzen da parte-hartze mekanismo aktiboetan?



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Banakako elkarrizketek egiaztatu dutenez, bilera eta tailerretako hizkuntzaren tratamendua herri bakoitzaren hizkuntza-errealitatearen, sentsibilitateen eta partaideen arabera aldatzen da. Eskuarki, positiboki baloratzen da.

Elebitasuna konplikatua da dokumentuak sortzean edo informazioa ematean, batzuetan edukia oso teknikoa izaten baita. Zenbait udalek ahalegina egiten dute, beren hizkuntza-politikari jarraiki.

16. Esperientzia ona:

Amurrioko Arnasa iraunkortasun-foroa, hau ere sarean.

Arnasa Iraunkortasun Foroa, herriko iraunkortasunaren alde lan egin nahi duten Amurrioko pertsonen, erakundeen eta taldeen parte-hartze mekanismoa eta topagunea da.

Egiten duen lana eta egindako ibilbidea aipagarria da: herritarren parte-hartzea bideratzen du, eta sarritan biltzen dira Amurrioko Tokiko Agenda 21en barruan interesa duten proiektuak eta lanak lantzeko.

Foroaren funtzionamenduaren ebaluazio-dinamiken barruan, taldeak proposatu zion udalari foro birtual bat sortzea, foro presentzialean landu eta eztabaidatu behar den informazioa emateko.

Foro birtualak ez du foro fisikoa ordezkatzen. Saio presentzialek dute lehentasuna, baina foro

birtualak beste foro indartu eta osatzen du, eta ekarpen hauek egiten ditu:

- Saio presentzialetara joan ezin duten pertsonen parte hartzeko aukera ematen die.
- Informazioa eskura jartzen du.
- Eztabaida birtualak eta hausnarketen eta ideien hartu-emana ahalbidetzen ditu.

Horretarako, Amurrioko Udalean foro birtuala kudeatzeaz arduratzen den pertsona bat dago. Foroak berak ezarritako arau erraz batzuetan oinarritzen da kudeaketa.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu helbide hau: www.foro.amurrio.org

17. Esperientzia ona:

Ingurumenerako Aholku Batzordearentzako tarte bat Donostiako Udaleko web-orrian.

Donostiako Ingurumenerako Aholku Batzordeak bere gunea du udaleko web-orrian, eta, gune horretan, eztabaidarako gaiekin lotutako informazio guztia ikus daiteke, adibidez: udaleko barne-dokumentuak, araudia, txosten teknikoak, laburpen-aktak... Horrela, partaidetza erraztu eta IAB osatzen duten pertsonen eta erakundeek iritzia izatea bultzatzen da.

Eremu hau udaleko ingurumen-sailak kudeatzen du, eta komunikazio, informazio eta prestakuntzarako tresna baliagarria da. Udalak egindako balorazioa positiboa da.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu udaleko web-orria: www.agenda21donostia.com


4.11 Parte hartzeko mekanismoek iraunkortasuna herri-mailan aplikatzen laguntzen dute.

Bederatzigarren ondorioan aipatu dugunez, prozesu parte-hartzaileak pertsonen arteko harreman, jokaera eta elkarrekintza-alderdiei buruzko heziketa-prozesuak dira. Baina eztabaidagai eta aztergaiei buruzko heziketa-prozesuak ere badira.

Hain zuzen ere, parte-hartze mekanismoak iraunkortasunari buruzko ikasketa- eta ezagutza-eremuak dira, eta gaiaren arabera praktikan zehazten dira: ingurumena, hirigintza, eskualdea, mugikortasuna, alderdi soziokulturala, ekonomia, Tokiko Agenda 21en segimendua, gatazkak...

Udaleri eta lurralde batzuetan Tokiko Agenda 21 planifikazio estrategiko globaleko tresnatzat hartzen bada ere, herri gehienetan ingurumenarekin, eskualdearekin eta mugikortasunarekin loturiko gaiak lantzen ditu (ikus 15. eta 16. irudiak).

15. Irudia. Parte-hartze mekanismoetan tratatutako gaien banaketa.




Iturria: EAEko 138 udaleri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdetegia.

Ideia nagusiak:

- Tokiko Agenda 21eko parte-hartze mekanismoetan landutako gaiak ingurumen-, lurralde-, eta mugikortasun-gaiekin eta Agenda 21en segimenduarekin lotuta daude. Gai horiek guztizkoaren % 57 osatzen dute.
- Gai ekonomiko eta soziokulturalen tratamendua % 18koa da.
- Tokiko Agenda 21en kudeaketa eta segimendua landutako gaien % 14 da.
- Tokiko Agenda 21eko parte-hartze mekanismoek tokiko gatazkak eta herriaz gaindiko gatazkak tratatu ditzakete. Jorratuko gaien % 9 dira gai horiek.

16. Irudia. Jorratutako gaien banaketa, parte-hartze mekanismo aktiboaren arabera.



Iturria: EAEko 138 udalerrri eta eskualdek 2009ko martxoan erantzundako galdeetgia.

Parte-hartze mekanismoen lan-prozesuetan hainbat azpifase egoten dira:

- Landu beharreko gaien buruzko informazioa.
- Hausnarketa, iritzien azterketa eta elkartrukea.
- Proposamenak eta kontrastea.
- Egin beharreko ekintzen lehenespena.
- Udal-erabakia.
- Ondorengo gauzatzea.
- Ebaluazioa.

Horrek berekin dakar denontzako heziketa- eta ikasketa-prozesu bat. Hauek dira prozesu horren helburuak:

- Iraunkortasunak gai hauetan duen esanahia eta inplikazioa ulertzea: mugikortasuna, udal-plangintza, argiztapen publikoen kudeaketa, mendien kudeaketa eta abar.
- Herritarrak, bere ohitura eta erabakiekin, tokiko garapen iraunkorrari ekarpenak egiteko duen ahalmena ulertzea: ezagutzea, sensibilizatzea eta ekitea.
- Ezberdinak diren eta ezberdin pentsatzen duten pertsonen ideiak, sensibilitateak eta ikuspegiak partekatzea eta kontrastatzea.

18. Esperientzia ona:

Prozesu parte-hartzailea Arrietako udal-plangintza berrian.

2008tik hona, Bizkaiko Arrietako Udalak Hiri Antolakuntzaren Plan berriaren edukia auzokoekin batera lantzen du. Nahiz eta legeak horretara ez behartu (Arrietak ia 600 biztanle ditu), udalak herritarren parte-hartzea sartu du aurreratze-, hasierako onartze- eta amaierako onartze-faseetan. 2003tik funtzionatzen duen Tokiko Agenda 21i protagonismoa eman dio.

Prozesu parte-hartzailea interesgarria izan da, arrazoi hauengatik:

- Arrietako biztanleek eztabaidan parte hartu dute, Tokiko Agenda 21 Foroetara 80 pertsonatik gora joan baitira.

- Herriaren lurralde-ereduari buruzko eztabaida sortu da, udal-hazkunderari mugak jarri zaizkio, eta tokiko garapen iraunkorraren aldeko apustua egin da.
- Xehetaz aztertu dira lurzoru urbanizaezinen erabilpenak eta babes-mailak.

Prozesu horretan, eta eztabaida sakonen ondoren, aurreratze-fasean lortutako adostasun-mailak planaren idazketa-fasearen ondorengo faseen garapena eta onarpena erraztu egin dute.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, kontsultatu www.arrieta-udala.net web-orrian.

19. Esperientzia ona:

Gabonetako argien ordutegiaren aukeraketa adostua Legazpin, merkataritza-elkarteak proposatuta.

2007an, Legazpiko Eskolako Agenda 21 Foroak udalari eta llini merkataritza-elkarteari eskatu zien Gabonetako argien ordutegia berrikustea, eraginkortasun energetikoko neurriak hartzeko xedearekin.

Merkataritza-elkarteak gaia Legazpiko Tokiko Agenda 21 Foroan eztabaidatzea proposatu zuen. Helburua argia zen: eraginkortasun energetikoko neurriak denda txikiei laguntzeko neurriekin bateratzen zituen alternatibarik onena bilatzea, Gabonetako argiak piztea merkataritza sustatzeko ekintza baita.

Testuinguru horretan, Legazpiko Tokiko Agenda 21 Foroan berariazko saio bat egin zen, eta Legazpiko ikastetxeek eta dendariak hartu zuten parte.

Eztabaida eta lan partekatu haren emaitza gisa, Foroak tarteko proposamena egin zuen: Gabonetako argien pizte-egunen kopurua handitzea eta pizte-orduen kopurua murriztea, guztizko balantzea kontsumo txikiagokoa izateko. Lortutako emaitza eragile guztiek onartu zuten, eta gaur egun ere indarrean jarraitzen du.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu udaleko web-orria www.legazpiko-udala.info edo Legazpiko Tokiko Agenda 21eko bulegoa.

20. Esperientzia ona:

Arabako Lautadan, Korrosparrri presari buruzko herritarren parte-hartze prozesua.

Arabako lautadako zenbait herritako ur-hornikuntzaren arazoa konpontzeko, eremu horretan urtegi bat eraikitzeko aukera aztertu da, Korrosparrriko presa, hain zuzen ere.

Proiektu horrek eztabaida sakona sortu du eskualdean; hori dela eta, Arabako Foru Aldundiak eta Arabako Uraren Agentziak herritarren parte-hartze prozesua sustatu dute "Urari buruz jakin, iritzia eman ahal izateko" izenarekin.

Prozesuaren diseinu eta garapenean hiru zutarrri hauek integratzen saiatzen ari gara:

- Beharrezko prestakuntza ur-kudeaketaren gaian.
- Informazio fidagarria, argia eta ulergarria eskuratu ahal izatea.
- Interesa duten eragile eta pertsonen parte-hartzea.

Martxan dagoen esperientzia da, eta, beraz, oraindik ezin da baloratu. Hala eta guztiz, esperientzia on gisa nabarmendu nahi dugu, parte hartu aurretik partaideak prestatzeari eman zaion garrantziagatik. Horretarako, parte-hartze prozesuan ekintza hauek bultzatu dira:

- Berariazko jardunaldi bat, ospe handiko adituen parte-hartzearekin.
- Beharrezko informaziora eta dokumentaziora sarbidea, web-orriaren bidez.
- Bisita gidatua, urtegia egitekoa den tokira.

Esperientzia hori eta haren garapena xehe eza-gutzeko, kontsultatu gai horri buruzko web-orria: www.korrosparrri.com

21. Esperientzia ona:

Gasteizko mugikortasunaren iraunkortasunerako eta eremu publikorako planaren prozesu parte-hartzailea.

Herritarren parte-hartzeak protagonismo nabarmena izan du Gasteizko mugikortasunaren iraunkorrerako eta eremu publikorako planean. Une honetan, planaren lehen fasea garatzen ari gara.

Hasi zenetik (2006), herritarren, politikarien eta teknikarien parte-hartzea planaren fase guztietako zeharkako ardatz integratzailea izan da.

Gasteizko mugikortasunaren iraunkortasunerako eta eremu publikorako planaren prozesu parte-hartzailea.

Parte hartzeko hainbat mekanismo sortu dira parte-hartzea bideratzeko:

- Mugikortasun iraunkorraren foroa: prozesu guztian erabili den berariazko mekanismoa. 2007ko apirilean Gasteizko mugikortasun iraunkorrerako herri-hitzarmena sinatu zuen, 70 erakunde eta elkarteren bermearekin.
- Etorkizuneko agertokiaren EASW tailerrak, Gasteizko mugikortasunari buruzkoak, herritar guztiei irekiak.
- Ingurumenaren Batzorde Sektoriala, iraunkortasun- eta ingurumen-arloetan herritarren parte-hartzea bideratzen duen organo sektoriala.
- Lurralde-partaidetza, lurraldeko batzordeen eta auzokoen elkarrekin bidez.
- 101 boluntarioko laguntza-kanpaina, herritarrei mugikortasun iraunkorraren jardueri eta garraio publikoko sare berriari buruzko informazioa emateko.
- Herritarrek blog eta web-orrietan parte hartzea.

Lan hori guztia egin ondoren, konplexua izaten ari da planaren lehen fasea abian jartzea eta gartzea. Planifikatutako jarduerak Gasteizko eragile,

erakunde eta herritarren interes eta ohiturekin talka egiten dute eguneroko jardunean.

Testuinguru horretan, prozesua oraindik garatzeko bidean dela, parte-hartze praktika on honek bere ikaspenak ditu ezaugarri:

- Batzuetan, iraunkortasunaren aldeko jarduerak eta eremu osasungarri eta garbiago baten aldeko ekintzek zenbait talde, eragile eta pertsonen interesekin talka egiten dute. Beraz, jarduera horiek justifikatzen dituzten argudio eta soluzio tekniko onak lortu behar dira, herritarren prestakuntza eta sentsibilizazioari ekarpena egiten diotenak.
- Kalitatezko prozesu parte-hartzaile bat egoteak ez du esan nahi herritar guztiak hartutako erabakiekin ados egongo direnik.
- Parte-hartze prozesu guztietan diskurtso eta sentsibilitate guztiak ordezkatuta egon daitezten lan egin behar da.
- Hiri-eraldaketa handietarako beharrezkoak dira herritarrei zuzendutako prestakuntza-ekintzak, haien sentsibilitatea, ulermena eta hausnarketa bultzatzeko.

Xehetasun gehiago nahiz izanez gero, kontsultatu udaleko web-orria www.vitoria-gasteiz.org.

22. Esperientzia ona:

Astigarragako Txotx mahaia.

Astigarragako Tokiko Agenda 21en barruan herritarren parte-hartzea sustatzeko, zenbait saiakuntza zehatz egin dira. Horietatik, Txotx mahaia nabarmentzen da, eginkizun hezitzailearengatik eta beti bat ez datozen ikuspegi eta interesak adosten saiatzeagatik.

Parte hartzeko mekanismo hau duela sei urte jaiotzen, sagardotegi-denboraldiak herrian sortzen dituen arazo eta gatazkei irtenbidea eman eta kudeatzeko asmoarekin.

Hasieran, eragileekin gai zehatz batzuei buruzko (kale-garbigaketa, zarataren kontrola...) bilerak egiten baziren ere, eginkizunak eta jarduerak antolatzea eta planifikatzea iritsi da, denborarekin. Honenbestez:

- Txotx-denboraldiaren segimendua egiteko mahaia eratu da, partaide hauekin: alkatetzaren eta udaltzaingoaoren ordezkariak, apare-

jadorea, Tokiko Agenda 21eko arduradunak, ingurumen-teknikaria, ostalariak eta Sagardun Partzuergoko kideak.

- Sagardo-denboraldiaren aurretik, bitartean eta ondoren biltzen dira denboraldiaren planifikazioa egin eta sortzen diren gaiak ekiteko.
- Mahaiaren funtsezko eginkizunetako bat da txotx-kanpaina hasi aurretik, bitartean eta ondoren udalerriri osoan informazio-zirkular batekin batera banatzen den galdetegiaren erantzunak koordinatzea, prozesatzea eta ebaluatzea. Hartutako neurriei buruko informazioa emateaz gain, gai honetan herritarren parte-hartzea errazten du, eta urtetik urtera udalak hartzen dituen neurrien gogobetetze-maila neurtzen du ekimen honek.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu udalaren www.astigarraga.net webgunea.

4.12 Iraunkortasunaren inguruan gizartea erantzunkide egitea eta sendotzea parte-hartze prozesuen eta Tokiko Agenda 21en emaitza da, eta eraikitzeke dago.

Erakundeak eta herritarrak iraunkortasunaren gainean sentsibilizatzea eta haien artean jarrera proaktiboak sustatzea da Tokiko Agenda 21en helburuetako bat. Ohitura, neurri eta erabaki iraunkorrak hartzearen aldeko eztabaida eta iritziak sustatu nahi ditu.

Prozesu hezitzaile honek denbora behar du pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko eran aldaketak eragiteko. Horretan laguntzen dute parte hartzeko prozesuek; izan ere, gizarte-egitura dinamikoa eratzeko, sareak sortzeko eta jabetutako pertsonen zeregina sendotzeko tresnak dira.

EAEen Tokiko Agenda 21 ezarri eta garatu den denbora-tartean ez da gauzatu lorpen hautemangarririk gizarte zibilaren iraunkortasunari buruzko erantzunkidetasunari eta sendotzeari dago-kienez. Ibilbidea luzea da, baina aurrera egiten ari gara esperientzia eta emaitza zehatzei esker:

- Eskolako Agenda 21. Prozesu hezitzailea da, eta tresna baliagarria hurrekin aritzeko eta familietara eta hezkuntza-komunitatera iristeko.
- Udalaren eta eskualdearen garapen iraunkoragoaren alde ekarpenak egiten eta laguntzen saiatzen diren tokiko talde eta elkarten sorrera.
- Tokiko Agenda 21ekin lotutako partaidetza-mekanismo batzuen erantzunkidetasuna eta haien jarrera proiektu zehatz batzuekiko.

23. Esperientzia ona:

Donostiako Udalaren subentzio-programak ingurumen gaietan diharduten eta parte hartzen duten irabazi-asmorik gabeko elkar-teentzat.

Donostiako herritarren partaidetza-plan zuzendariak hiriko elkar-te-sarea indartzea, erantzunkide egitea eta sendotzea du helburu, besteak beste, eta horretarako behar diren ekintzak planifikatzen ditu.

Neurri zehatz gisara, Udaleko Agenda 21 eta Klima Aldaketa Zerbitzuak diru-laguntzen programa bat du ingurumenaren alorrean diharduten elkar-teentzat.

Diru-laguntzak ekintza hauetara bideratuta daude:

- Elkartearen eguneroko jarduera mantentzeko.
- Ingurumenaren alorrean programa bereziak gauzatzeko, ekitaldi bakoitzean Udalak lehenetsitako gaiei buruz betiere.

Laguntza-programa horretara 31.500 euro bideratu ziren 2009an, eta lehenetsitako programak hauek dira:

- Hiri-hondakinak prebenitzeko eta berrerabiltzeko, birziklatzeko eta/edo konpostgintzarako erabiltzeko programak.
- Udalerrian biodibertsitatea babesteko programak, eta, horren barruan, sentsibilizazio- eta zabalkunde-programak eta azterketak egiteko programak.
- Udalerrian negutegi-efektuko gas gutxiago isurtzeko programak.

Diru-laguntzen programari buruzko xehetasunik nahi izanez gero, kontsultatu udalaren www.donostia.org webguneko herritarren partaidetza, diru-laguntzak atala.

5. Etorkizuneko erronkak



5. Etorkizuneko erronkak

Dokumentu honekin batera, gauzatutako lan-prozesuak pauso bat gehiago emateko besteko ezagutza sortu du. 2000z geroztik Tokiko Agenda 21en esparruko herritarren partaidetza-prozesuek izandako bilakaera aztertzeaz eta ondorioak ateratzeaz gain, etorkizuneko erronka nagusiak zehaztu dira.


Tokiko Agenda 21 prozesuetan toki-erakundeek erdiesteko zailak diren helburuak jotzen dira erronkatzat, baina, era berean, pizgarriak dira eta eutsi beharreko desafioak.

Eta, zein dira? Etorkizuneko erronkak identifikatu dira diagnostikoko puntu batzuei kontra egiteko eta horrekin Tokiko Agenda 21 partaidetza-prozesuak indartzeko, eta alor hauekin zerikusia duten erronkak dira:

- Publikoaren balioa.
- Udalaren gidaritzza.
- Udalaren planifikazioa eta antolakuntza.
- Diseinu- eta lan-metodoa.
- Beharrezko tresnak eta baliabideak.

Eremu horiek elkarri lotuak daude, eta etengabe aldatzen dira. Ez dira zerotik abiatzen, aurrera egiten laguntzen duten urratsak egin baitira dagoeneko (ikus 17. irudia).

17. Irudia. Identifikatutako etorkizuneko erronken erreferentzia-eremuak.



Iturria: Geuk landua.

Zehaztutako eremuei dagokienez, etorkizuneko 8 erronka identifikatu ditugu, eta horiek dira lortu beharreko helburuak.

Identifikatutako etorkizuneko 8 erronkak:

Balioak

1. Alor publikoaren balioa sendotzea, guztiona eta kolektiboa den horrekiko interesa eta, horrenbestez, partaidetzaren kultura sustatzea, betiere erantzukidetasuna abiapuntu dela.

Lidergo partekatua

2. Herritarren parte-hartzearekiko eta toki-iraunkortasunarekiko udal-gidaritza eta -konpromisoa finkatzea.

Antolakuntza eta planifikazioa

3. Udal- eta eskualde-kudeaketan herritarren parte-hartzea antolatzeta eta planifikatzea.
4. Udal- eta eskualde-antolaketa egokitzea eta beharrezkoak diren hobekuntzak sartzea.

Metodoa

5. Kalitatezko prozesu parte-hartzaileak planifikatzea eta garatzea fase guztietan, diseinutik ebaluaziora bitarte.

Tresnak eta baliabideak

6. Herritarrei Tokiko Agenda 21 eta parte-hartze prozesuetako lana eta emaitzak jakinaraztea (gehiago eta hobeto).
7. Administrazioari eta herritarrei tokiko parte-hartzeari eta iraunkortasunari buruzko prestakuntza ematea.
8. Lan egiteko modu eta tresna berritzaileak sortzea, eta parte-hartzea bultzatzeko baliabideak garatzea.

Erronka guztiak identifikatuz eta zehaztuz, parte hartzen duten eragileen hausnarketa eta ekintza bateratuak sustatu nahi ditugu. Jarraian zehaztu ditugu erronka horiek lortzen lagundu dezakeen analititik ateratako orientabide eta proposamenak.

5.1 Etorkizuneko 8 eginkizun, xehe

Erronka bakoitzari loturiko ideiak ezagutzeak erabilitako hizkuntzak eta irizpideak bateratzen ez ezik, epe labur helburuak eta ekintzak lantzen lagunduko du.

1. erronka Alor publikoaren balioa sendotzea, guztiona eta kolektiboa den horrekiko interesa eta, horrenbestez, partaidetzaren kultura sustatzea, betiere erantzukidetasuna abiapuntu dela.

Lehenengo erronka da alor publikoaren balioa indartzea eta gizartearen alderdi kolektiboarekiko interes soziala sendotzea, interes pribatuaren gailentasunari kontrajarriz.

Publikotasunaren balioa indartzea (“-ren parte izatea” eta parte aktibo izatea) guztion ardurada: udalarena eta herritarrena.

Tokiko Agenda 21en berezko helburua da, gizartea eraldatzea eta hobetzea baitu xede, iraunkortasuna eta herritarren partaidetza irizpide direla.

Horretarako, lagungarri dira:

- Udalaren eginkizun pedagogikoak eta ekintza ereduak, herritarrengandik gertuen da goen erakundea baita.
- Kontzeptu horiek politika publikoan zer eragin duten ikusten laguntzeko saiakuntza parte-hartzaileak aintzat hartzea eta hedatzea.
- Partaidetza-proiektuak prozesu hezigarritzat, gaitasun eta trebezia garatzailetzat hartzea.



2. erronka Herritarren parte-hartzearekiko eta toki-iraunkortasunarekiko udal-gidaritza eta -konpromisoa finkatzea.

Parte-hartze eta toki-iraunkortasuneko prozesuak sustatzeak aldaketak eragiteko beste politika eta proiektu batzuk garatzea dakar. Horretarako, ezinbestekoak dira udalaren gidaritza eta konpromiso sendoak. Arduradun politikoei eta udaleko eta eskualdeko teknikariek gidaritza partekatatu behar dute, eta esku hartzen duten gainerako eragileei parte-hartzea erraztu behar diete.

Lidergoa ez da nahastu behar udalaren edo gizarte-eragileen jarrera populistekin. Gidatzea udalerriko iritziak erraztea eta bideratzea da, ez prozesuaz jabetzea.

Udal-aitzindaritza partekatua, bideratzailea, arduratsua, konfiantza-sortzailea, mugak argi eta garbi zehazten dituena... bermatzea da erronka. Eginkizun horretan, komeni da ez ahaztea eskualde-erakundeek ematen duten sostengua.

3. erronka Udal- eta eskualde-kudeaketan herritarren parte-hartzea antolatzea eta planifikatzea.

Diagnostikoan islatu denez, udalek eta eskualde-erakundeek herritarren parte-hartzea antolatzeko premia dute.

Udal- eta eskualde-kudeaketan herritarren parte-hartzea nola bideratu pentsatzea, diseinatzea eta planifikatzea da, beraz, desafioetako bat. Alegia:

- Tokiko kudeaketan herritarren partaidetza zergatik eta zertarako txertatu behar den zehaztea.
- Parte-hartze hori nola antolatu behar den finkatzea maila guztietan: global, sektorial edo gaikakoa, eta lurraldekoa edo auzo edo barrutien arabera. Tokiko Agenda 21 parte-hartze mekanismoen funtzioa erabakiko da, tokian tokiko zer guztiaren eta antolakuntza-aren arabera.
- Aurreko horren guztiaren arabera, zer gai, proiektu edo arazo aztertu zehaztea.

Udalerri edo eskualde-erakunde bakoitzak zehaztu eta adostu behar du herritarrek parte-hartzeko bere eredu propioa, eta eredu horrek honetarako aukera eman behar du:

- Udal- eta eskualde-kudeaketan txertatutako parte-hartze prozesuak eta guneak antolatu eta koherentziaz jantzi.
- Lan-prozesuak eta emaitzak ebaluatu.

4. **erronka** Udal- eta eskualde-antolaketa egokitzea eta beharrezkoak diren hobekuntzak sartzea.

Aurreko erronkarekin koordinatuta, udal eta eskualdearen antolakuntza parte-hartzean oinarritutako barne- eta kanpo-kudeaketarako prestatzeko eta egokitzeko behar diren neurriak hartzean datza.

Barne-lanetik abiatuta, udaleko alorren arteko koordinazioa errazteko behar diren antolakuntza-aldaketak nork bere gain hartu eta kudeatzea esan nahi du, betiere barne-partaidetza errazten eta bideratzen duen udal-lidergo partekatutik.

Antolakuntza-aldaketa horiek alderdi hauek ekar ditzakete berekin:

- Herritarrek parte hartzeko gune bat sortzea, erakunde gisa barne zeharkakotasuna eta partaidetza eta herritarren parte-hartzea lantzen dituen.
- Iraunkortasuneko Batzordeak eta 21 Bulegoak abian jartzea eta/edo indartzea.
- Udal-antolakuntzan ere harremanei eta alor informalarri garrantzia ematea eta jorratzea.
- Parte-hartzeari buruzko udal-arautegia prestatzea edo eguneratzea komeni den aztertzea.

5. **erronka** Kalitatezko prozesu parte-hartzaileak planifikatzea eta garatzea fase guztietan, diseinutik ebaluaziora bitarte.

Orain arte egin diren Tokiko Agenda 21 parte-hartze saiakuntzak askotarikoak dira, eta kalitatea ere bai. Horregatik, parte hartzeko prozesu osoaren kalitatea hobetzeko erronka ezarri dugu: diseinutik ebaluaziora bitarte.

Esku hartzen duten eragileen sustapen-jarduera guztiek eta ikaskuntza metatuak erronka hori lortzen laguntzen dute. Baina, nolana ere, esperientzia indartu eta eskuratutako ezagutza sendotu egin behar da oraindik, kalitate oneko prozesuak direla esan ahal izateko.

Horretarako, garrantzitsua da parte hartzeko prozesuaren diseinua eta garapena zaintzea, neurri hauek aplikatuz:

- 8+3 formularen jasotako kalitate-jarraibideak aintzat hartzea ("8+3 formula: funtsezko 8 urrats eta 3 baldintzak partaidetza-prozesua garatzeko estrategian").
- Landu beharreko gaiari eta esku hartzen duten eragileen arteko harremanari garrantzia ematea.

6. erronka **Herritarrei Tokiko Agenda 21 eta parte-hartze prozesuetako lana eta emaitzak jakinaraztea (gehiago eta hobeto).**

Erronka honen atzean ideia argi bat dago: sakonago eta hobeto eman behar dira ezagutzera Tokiko Agenda 21ean eta herritarren partaidetza-prozesuetan egiten den lana eta lortzen diren emaitzak. Herritarrek, bestela, ez dakite, ez dute baloratzen, ez dute ikusten, eta aldena egiten dira.

Publiko jasotzaileari gehiago komunikatzea eta publiko horrengana hobeto iristea da erronka honen helburua. Komunikazio-estrategiak zaintzeko zenbait ideia:

- Komunikazio-kanalak dibertsifikatzea (fisikoak eta birtualak) helburuko publikoaren arabera, "betiko" komunikazio-kanalak edo beste kanal informalago batzuk baloratuz.
- Hedabideekin elkarlanean aritzea. Tokiko Agenda 21 parte-hartze prozesuei prestigioa ematea, komunikabideetan aipamen positiboak tartekatuz.
- Parte hartzen duten pertsonen eta erakundeek egiten duten lana aitortzea. Lehen pertsonan kontatzen diren esperientziak baloratzea.
- Hizkera argia, soila eta erakargarria erabiltzea, informazioa ulergarria eta hurbila izateko jasotzailearentzat.

7. erronka **Administrazioari eta herritarrei tokiko parte-hartzeari eta iraunkortasunari buruzko prestakuntza ematea.**

Administrazioaren eta herritarren partaidetzaren eta iraunkortasunaren gaineko prestakuntza eta gaitasunak areagotu egin behar dira. Prestakuntza hobea izatea da helburua, baita harremanetarako gaitasunak eskuratzea eta erabiltzea ere.

Ezagutzak eta trebeziak, erronka guztietan dauden zehar-elementuak dira.

Parte-hartzea lantzerako eta gai teknikoei eta iraunkortasunaren inguruko gaietarako buruzko ezagutza eta irizpideak sortzerako bideratuta dago prestakuntza.

Parte-hartzearen harremanen alorrean (entzuteko gaitasuna, enpatia, konfiantza edo talde-lana) arreta berezia eskaintzen dion gaitasuna izan behar du.

Hauek dira ikaskuntza-baliabide batzuk:

- Partaidetza-esperientzia onak eta txarrak ezagutzea eta aztertzea.
- Lortutako emaitzak bistaratzea, hizkera bateratua izan eta "guztiok gauza beraz aritzeko" oinarritzko bitartekoak eta materiala prestatzea.

8. erronka Lan egiteko modu eta tresna berritzaileak sortzea, eta parte-hartzea bultzatzeko baliabideak garatzea.

Erronka honek bi noranzko ditu:

- Herritarren parte-hartze prozesuetan baliagarriak izango diren lan-tresna, -lerro eta -era berriak ikertzea eta garatzea.
- Giza baliabideak eta baliabide ekonomiko, tekniko eta materialak jartzea parte-hartzea ikuspegi berritzailearekin sustatzeko eta bermatzeko.

Gure demokrazia sendotzeko kalitateko parte-hartze prozesuetan aurrera egiteko bitartekoak asmatzea eta gauzatzea da helburua, irizpide hauek aintzat hartuta:

- Parte hartzeko mekanismoetan, bertaratzekoetan eta birtualetan, dibertsifikazioa eta berrikuntza bilatzea.
- Partaidetzan teknologia berriak sustatzea: 2.0 parte-hartze sistemak aztertzea, ikertzea eta garatzea.
- Parte hartzeko era, dinamika eta bitarteko berriak diseinatzea.
- Eraginkorra izateko eta sortzen diren oztopoei aurre egiteko sormena baliatzea.
- Parte-hartze prozesu guztietan pertsonak protagonista izatea.

